




# INDUSTRIA eta ERAIKUNTZA

IV. KONGRESU FEDERALA



# LANGILEEKIN ERALDATU

LANGILERIA  
ANTOLATU,  
GIZARTEA  
ERALDATU

azaroak 27 >>>

AUDITORIOA / Barañain

**ELA**

INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA



**LANGILERIA ANTOLATU,  
GIZARTEA ERALDATU**

MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

# AURKIBIDEA

|                                           |    |
|-------------------------------------------|----|
| AURKEZPENA.....                           | 4  |
| GAI-ORDENA.....                           | 5  |
| ARAUDIA .....                             | 6  |
| KUDEAKETA TXOSTENA.....                   | 16 |
| EBAZPENAK.....                            | 28 |
| BATZORDE IRAUNKORRERAKO PROPOSAMENA ..... | 41 |

# AURKEZPENA

Kongresukide agurgarria,

Argitalpen honetan datorren azaroaren 27an Barañainen egingo dugun kongresurako beharrezkoak diren testu guztiak bildu ditugu. Testu horiek aurrez posta elektronikoz bidali zaizkizu.

Testu horien artean, hiru nabarmendu nahi ditut, bozkatuak izango direnak gainera:

- Kudeaketa txostena: federazioko zuzendaritzak azken urteotan egindakoaren berri ematen duen dokumentua da, aurreko kongresu-mandatuari erantzunez.
- Hurrengo lau urteetarako federazioko Batzorde Iraunkorrerako proposatzen diren pertsonen Zerrenda.
- Azkenik, Ebazpenak: datozen urteetan garatu nahi dugun programaren ildo estrategikoak jasotzen dira bertan.

Azken urteak oso biziak izan dira, baina uste dut gure militanteak aurrean izan ditugun erronken mailan egoten jakin dutela. Hemendik aurrera, politika neoliberalet eta neofaxismoaren gorakadak sortzen duten kezkatik abiatuta, ELAko kide garenok ilusio osoz defendatuko ditugu langile klasearen interesak.

Gure federazioaren jardun ildoak erabakitzea ardura handiko ariketa da, eta azpimarratu nahi dut lan kolektibo bat dela horiek aurrera eramatea. Horixe da gure indarra: talde-lana. Kongresuak gure federazioko lehen lerroko militanteen topagune izateko ere balio behar du. Beti da pozgarria elkar topatzea, goza dezagun.

Ziur nago lan ona eta kongresu eztabaida aberatsa egingo ditugula.

Besarkada bat,

**Unai Martínez Azarola**

Industria eta Eraikuntzako Idazkari Nagusia

# GAI-ORDENA

|                      |                                                                                                                                   |
|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>8:30 – 9:30</b>   | Kongresukideen akreditazioa                                                                                                       |
| <b>9:30 – 9:50</b>   | Kongresuaren irekiera eta mahaiko kideen aukeraketa                                                                               |
| <b>9:50 – 10:05</b>  | Mahaiaren agurra eta gonbidatuen aurkezpena                                                                                       |
| <b>10:05 – 10:35</b> | ELAko idazkari nagusiaren parte hartzea                                                                                           |
| <b>10:35 – 11:30</b> | Batzorde iraunkorraren Kudeaketa txostenaren aurkezpena                                                                           |
| <b>11:30 – 11:45</b> | Kudeaketa txostenaren erantzunak                                                                                                  |
| <b>11:45 – 11:55</b> | Idazkari nagusiaren erantzuna                                                                                                     |
| <b>11:55 – 12:02</b> | Bideoa                                                                                                                            |
| <b>12:02 – 12:10</b> | Kudeaketa txostenaren bozketa                                                                                                     |
| <b>12:10 – 12:40</b> | Deskantsua                                                                                                                        |
| <b>12:40 – 12:50</b> | Organizazio gonbidatu baten parte hartzea                                                                                         |
| <b>12:50 – 13:00</b> | Ebazpena “Kalitatezko enplegua bermatzen duen eta transizio<br>ekosoziala bultzatzen duen politika industrial bat exijitzen dugu” |
| <b>13:00 – 13:07</b> | Organizazio gonbidatu baten parte hartzea                                                                                         |
| <b>13:07 – 13:17</b> | Ebazpena “Enpresak eta sektoreak sindikatzeko gure bizitza duin<br>bihurtzen du”” aurkeztu eta bozkatu                            |
| <b>13:17 – 13:27</b> | Ebazpena “Bada garaia Euskal-Herrian langileen eskubideak<br>errespetatuz eraikitzeko”” aurkeztu eta bozkatu                      |
| <b>13:27 – 13:37</b> | Organizazio gonbidatu baten parte hartzea                                                                                         |
| <b>13:37 – 13:42</b> | Abisuak                                                                                                                           |
|                      | BAZKARIA                                                                                                                          |
| <b>15:15 – 15:25</b> | Ebazpena “Federazio feminista eta eraldatzaile baterantz” aurkeztu<br>eta bozkatu                                                 |
| <b>15:25 – 15:35</b> | Ebazpena “Lan egingo dugu lan-merkatuko diskriminazioak eta<br>prekarietatea desagerrarazteko” aurkeztu eta bozkatu               |
| <b>15:35 – 15:45</b> | Ebazpena “Gure lan-baldintza guztiak Euskal-Herrian negoziatzea<br>exijitzen dugu” aurkeztu eta bozkatu                           |
| <b>15:45 – 15:52</b> | Batzorde iraunkorreko hautagaitzaren aurkezpena                                                                                   |
| <b>15:52 – 16:25</b> | Batzorde iraunkorreko bozketa                                                                                                     |
| <b>16:25 – 16:35</b> | Bideoa                                                                                                                            |
| <b>16:35 – 16:45</b> | Mahaiaren agurra eta bozketaren emaitzak jakinarazi                                                                               |
| <b>16:45 – 17:15</b> | Idazkari nagusiaren hitzartzea                                                                                                    |
| <b>17:15 – 17:30</b> | Kongresuaren amaiera ekitaldia                                                                                                    |

# ARAUDIA

## 1. ARTIKULUA.

### Izena eta eremua

1. Industria eta Eraikuntza Federazioa da industrian, eraikuntzan eta eratorrietan lan egiten duten afiliatuak biltzen dituen Egitura Profesional Nazionala.
2. Industria eta Eraikuntza Federazioa Euskal Langileen Alkartasuna-Solidaridad de Trabajadoras y Trabajadores Vascos Sindikatuaren parte da; honen siglak, ELA zein ELA/STV dira.
3. Lurralde-eremua Sindikatuarena da eta, beraz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeak hartzen ditu.
4. Sindikatuaren Estatutuek eta Araudiek ezarritako markoan Industria eta Eraikuntza Federazioa da Sindikatuko Egitura Profesionaletako bat (barne-eraginetarako "Federazio" izena duena), zeinak Sindikatuaren Estatutuen eta araudi honen baitan diharduen.

## 2. ARTIKULUA.

### Xedea eta jarduteko bitartekoak

1. Sindikatuaren helburu orokorren baitan, Industria eta Eraikuntza Federazioaren xedea da haren eremu profesionaleko sektoreetako langileak elkartu eta antolatzea, haien eskubide eta interesak era egokiagoan defendatzeko eta lan- zein bizi-baldintzak hobetzeko.
2. Bere helburu profesional espezifikoak eta ELAren helburu orokorrak iristeko, Industria eta Eraikuntza Federazioak bere esku dituen ekintza sindikaleko bitarteko guztiak baliatuko ditu, honako ekintza-eremuetan arreta berezia jarritz:
  - a) "Federazioa" osatzen dutenen eta langile guztien arteko elkartasuna sustatu.
  - b) Afiliatuak modu eraginkorrean antolatu.
  - c) Afiliatu berriak erakartzea sustatu, etengabe landuz informazioa, propaganda eta proselitismoa.
  - d) "Federazio" honetako langileen aldarrien aldeko presio eta mobilizazio neurriak sustatu eta babestu, Erresistentzia-Kutxa modu egokian erabiliz.
  - e) Afiliatuen arazo profesionalen arreta eta konponbide eraginkorra bere gain hartu, horretarako era koordinatuan baliatuz "Federazio"aren berezko bitartekoak, Eskualde-batzenak eta Sindikatuaren zerbitzuak.
  - f) "Federazio"aren eremuan Sindikatuaren politiken berri eman eta hauek egokiro garatu.
  - g) Afiliatuak ordezkatzeko enpresaburuen elkarteetan, administrazio- eta justizia-erakundeetan eta behar den beste erakunde eta antolakunde guztietan. Ordezkatzeko funtzioen artean arreta berezia jarriko da lan-hitzarmen eta akordioen negoziazioan.
  - h) "Federazio"aren eta Sindikatuaren berezko bitartekoak baliatuz arduradun eta militanten prestakuntza sustatu.
  - i) Afiliatuei informazioa eman Sindikatuaren eta "Federazio"aren beraren argitalpenen bidez, halaber beste komunikabide batzuk ere erabiliz langile guztiengana iristeko.
3. Sindikatuaren ildoen baitan, Industria eta Eraikuntza Federazioak ELAko gainerako Egitura Profesionalekin eta Eskualde-batzekin lan egingo du.

### 3. ARTIKULUA.

#### **Afiliatu bihurtu eta izaera hori galtzea**

Afiliatu bihurtzeko eta izaera hori galtzeko modua Sindikatuaren Estatutueta eta Diziiplina-Araudian ezarritakoaren arabera izango da.

### 4. ARTIKULUA.

#### **Egitura Profesionaleko organoak**

1. Industria eta Eraikuntza Federazioaren organoak dira Kongresu "Federala", Batzorde "Federala", Idazkaritza, Batzorde Iraunkorra eta Eskualde-Batzorde "Federalak".
2. Organo "federalak" balio osoz eratutzat joko dira, behar bezala deituta, kideen erdiak baino gehiagok parte hartzen badute bileran.
3. Organo "federalet" gehiengo soilez hartuko dituzte erabakiak, gehiengo kualifikatua espresuki eskatzen den kasuetan izan ezik.
4. Batzorde Iraunkorreko edo Idazkaritza "Federal"eko kide izateko lau urteko antzintasuna behar da, etenik gabe, ELAn afiliatuta. Batzorde "Federal"eko kide izateko, berriz, bi urteko antzintasuna. Batzorde "Federal"ak, salbuespenez, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta kasuan kasu, kargu horietara iristeko antzintasun eskakizuna salbuetsi dezake.
5. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta hau ezin da eskuordetu.
6. Aipatutako organoetako kargudunak berrautatzeko aukera dago.

### 5. ARTIKULUA.

#### **Bateraezintasunak**

1. Kongresu "Federal"eko, Batzorde "Federal"eko, Idazkaritza "Federal"eko, Batzorde Iraunkorreko eta Eskualde-Batzorde "Federal"etako kide izatea bateraezina da talde edo alderdi politiko baten zuzendaritza-organoetako kide izatearekin eta kargu publiko bat izatearekin. Hauteskunde politikoetan parte hartzea aski izango da ardura sindikaletik kentzeko. Halaber, bateraezintasun hori aplikatuko zaie ordu-kreditu sindikala metatu eta ekintza sindikalean dedikazio eskusiboa duten pertsona guztiei.
2. ELAko afiliatuek ezin dute beren izaera sindikala erabili hauteskundeak egiteko, helburu politikoak lortzeko edo berez sindikalak ez diren beste helburu batzuetarako.

## KONGRESU "FEDERALA"

### 6. ARTIKULUA.

#### **Kongresu "Federal"aren osaera**

1. Kongresu "Federala" da Egitura Profesional Nazionalaren organo gorena. Berau osatuko dute Batzorde "Federala" osatzen duten kideek -hauek eskubide guztiak dituzten kongresukideak izango dira- eta Eskualde-"Federazio"etan hautatutako 270 ordezkariak.
2. Eskualde-"Federazio" bakoitzak hasteko lau kongresukide izango ditu. Gainerako kideak, 270 ordezkari osatu arte, Eskualde-egitura profesionalen artean banatuko dira egiaztatutako afiliazioaren proportzioan.



3. Kongresua hasi baino gutxienez lau hilabete lehenago Idazkaritzak Eskualde-Batzorde "federal"ei jakinaraziko die zenbat ordezkari dagozkien, eta organo horiek hautatuko dituzte Kongresuan Eskualde-"Federazio"aren ordezkariak nortzuk izango diren.
4. Eskualde-"Federazio" bakoitzari hasierako zenbatekotik haratago dagokion ordezkari kopurua erabakitzeko Kongresua deitzen den unean afiliatuta dagoen jende kopurua zenbatuko da.
5. Eskualde-"Federazio"ek Idazkaritzari jakinaraziko diote bere ordezkarien zerrenda Kongresua baino hiru hilabete lehenago.
6. Parte hartzea ezinezkoa denean, hau behar bezala justifikatuz gero, kongresukide bat ordezka dezake bera hautatu duen organizazioak. Ordezkapena Idazkaritzari jakinarazi behar zaio gutxienez Kongresua hasi baino hamar egun lehenago. Behin epe hori igaro denean ez da ordezkapenik onartuko.
7. Kongresu "Federal"eko ordezkariak ELAn gutxienez urtebeteko afiliazio-antzinatasuna izan behar dute, Kongresua deitzen den unean. Salbuespen gisa, Batzorde "Federal"ak, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta banan-banan erabakiz, antzinatasunaren eskakizuna salbuetsi dezake.

## **7. ARTIKULUA.**

### **Kongresu "Federal"erako deialdia**

1. Kongresuaren ohiko saioa lau urtean behin izango da, Batzorde "Federal"ak deituta, gutxienez sei hilabete lehenago. Idazkaritzak proposatu eta Batzorde "Federal"ak erabakitzen duen egun eta lekuan izango da.
2. Kongresuko gai-zerrenda Idazkaritzak finkatuko du, Batzorde "Federal"ak sartzea erabakitako gaien arabera, eta ordezkariak gutxienez bi hilabete lehenago igorriko die.

## **8. ARTIKULUA.**

### **Kongresu "Federal"aren eskuduntzak**

Kongresuan datza "Federazio"aren subiranotasuna. Zehazki, Kongresuaren eskuduntzak dira honako hauek:

- a) Industria eta Eraikuntza Federazioaren helburuak eta orientazio orokorra definitzea.
- b) Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena onartzea.
- c) Batzorde Iraunkorra hautatzea.
- d) "Federazioak" beste Egitura Profesional batekin edo batzuekin bat egitea onartzea, eta sektoreak bereizi nahiz txertatzea, Sindikatuaren Estatutuen eta hauek garatzeko Araudien baitan.

## **9. ARTIKULUA.**

### **Kongresu "Federal"aren gai-zerrenda**

1. Gai-Zerrenda Idazkaritzak finkatuko du, eta Batzorde "Federal"ak erabakitako gaiak jasoko ditu.
2. Gai-Zerrendan gutxienez puntu hauek agertuko dira:
  - Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostenaren onarpena

- Datozen lau urteetarako lan-ildoak orientatzeko Ebazpenen onarpena
  - Batzorde Iraunkor berriaren hautaketa
3. Aurreko atalean aipatutako ebazpenen zirriborroen inguruan Eskualde-"Federazio"ek eztabaida-saioak antolatuko dituzte beren eskualde-eremuko kongresukideekin.
  4. Idazkaritzak Kongresuari bozkatzeko beste Ebazpen batzuk ere aurkeztu ahal izango dizkio. Hauen testua ere ordezkarietara bidaliko zaie, Kongresua baino gutxienez hilabete lehenago, baldin eta Ebazpena aurreikusi gabeko egoera bati buruzkoa ez bada.

## 10. ARTIKULUA.

### **Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena**

1. Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena Kongresuak bozkatuko du. Txostena ordezkarietara bidaliko zaie, Kongresua baino hilabete lehenago.
2. Eskualde-"Federazio"ek Kongresuan hitza hartu ahal izango dute Kudeaketa-Txostenari buruzko iritzia adierazteko.

## 11. ARTIKULUA.

### **Kongresuko Mahaia**

1. Kongresuko Mahaia osatuko dute lehendakari batek, lau kidek -lurraldeko bana- eta aktidazkari batek. Idazkaritzak proposatuko ditu Mahaiko kideak eta Kongresuak onartuko ditu.
2. Mahaiaren ardura da Kongresua behar bezala garatzea eta Gai-Zerrenda modu egokian aintzat hartzen dela, hitz-hartzeak egokituko ditu, eztabaidak moderatuko ditu eta bozketak ordenatuko ditu. Bere eginkizuna da kongresua ireki eta ixtea.

## 12. ARTIKULUA.

### **Bozketak**

1. Kongresuak honela hartuko ditu erabakiak:
  - Aho batez, gehiengo nabarmena dagoenean.
  - Lehentasunez, jarrera baten gehiengoa behar bezain argi ikusten denean.
  - Ohiko bozketaz, botoak zenbatuta. Botoak zenbatzea beharrezkoa izango da erabakiak gehiengo kualifikatua eskatzen badu.
2. Kongresuko Mahaiak edota ordezkariak, gehiengoz, erabaki dezakete bozketa bat nominala edo sekretua izatea.
3. Nolanahi ere, Batzorde Iraunkorra hautatzeko bozketa nominala eta sekretua izango da.

## 13. ARTIKULUA.

### **Gonbidatuak**

Idazkaritza "Federal"ak Kongresura gonbidatuko ditu egoki deritzen erakunde eta pertsonak.



#### **14. ARTIKULUA.**

##### **Ohiz kanpoko Kongresua**

1. Kongresuak ohiz kanpoko saioak ere izan ditzake. Ohiz kanpoko Kongresua deitzeko erabakia Idazkaritzaren esku dago, bere kideen bi herenen gehiengoz, eta Batzorde "Federal"ak onartu behar du.
2. Ohiz kanpoko Kongresuaren deialdia gutxienez hilabete lehenago egin behar da.
3. Ohiz kanpoko Kongresuan soilik garatuko dira deialdian berariaz agertzen diren gaiak.

#### **BATZORDE "FEDERALA"**

#### **15. ARTIKULUA.**

##### **Batzorde "Federal"aren osaera eta hautaketa**

1. Batzorde "Federala"?da Industria eta Eraikuntza Federazioaren Kongresu arteko organo gorena. Idazkaritzako kideek eta Eskualde-"Federazio"ek Eskualde-Batzorde "Federal"en bidez izendatutako 70 lagunek osatuko dute.
2. Behin Kongresua burututa, Batzorde Iraunkorrak Eskualde-"Federazio" bakoitzari jakinaraziko dio Batzorde "Federal"ean dagokion ordezkari kopurua; hau honela banatuko da:
  - a) Eskualde-"Federazio" bakoitzari hasteko kide bana dagokio.
  - b) Gainerako kideak, 70 osatu arte, Eskualde-"Federazio"en artean banatuko dira azken Kongresu "Federala" egin zen unean egiaztatutako afiliatu kopuruaren proportzioan.
  - c) Eskualde-"Federazio"ek Idazkaritzari haien ordezkarien zerrenda helaraziko diote, bi hilabeteko epean.
  - d) Batzorde "Federal"eko kideak berrituko dira ohiko Kongresu "Federal" bakoitzaren ondoren.
  - e) Ohiko Kongresuen artean sortzen diren hutsuneak dagokion Eskualde-"Federazio"ak osatuko ditu; halaber, arrazoi justifikaturik bada, Batzorde "Federal"eko bere ordezkariak kargutik kendu ahal izango ditu.
  - f) Batzorde "Federal"ean sektoreetako errealitate ezberdinak ordezkatzeko eginahala egingo da.

#### **16. ARTIKULUA.**

##### **Batzorde "Federal"aren eskuduntzak**

Bereziki hauek dira Batzorde "Federal"aren eginkizunak:

- a) Kongresu "Federal"ak finkatutako helburu eta orientabide orokorrak betetzen direla zaintzea.
- b) Idazkaritzaren eta Batzorde Iraunkorraren jarduera gainbegiratzea.
- c) Idazkaritzako kideak izendatu, kargutik kendu eta ordezkatzeta.
- d) Sindikatuko organo eta erakundeetan Industria eta Eraikuntza Federazioaren ordezkariak izendatzea.
- e) Kongresuari proposatzea Batzorde Iraunkorra osatzeko hautagai-zerrenda.

- f) Industria eta Eraikuntza Federazioaren barne-araudia erabakitzea, Idazkaritzak proposatuta.
- g) Atal sindikalen eta Eskualde-"Federazio"en jarduera arautzea.
- h) Egoki deritzen Batzordeak eratzea.
- i) Barne-araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.

## 17. ARTIKULUA.

### Batzorde "Federal"aren saioak

1. Batzorde "Federala" gutxienez urtean bitan bilduko da. Deialdia Idazkaritzak egingo du; halaber, Batzorde "Federala" bera osatzen duten kideen heren batek ere egin dezake deialdia.
2. Deialdian gai-zerrenda finkatuko da; hala ere, beste gai batzuk ere lantzeko aukera dago, baldin eta Batzorde "Federal"ak berak erabakiz gero, bere kideen bi herenen gehiengoz.
3. Batzorde "Federal"eko kideren bat, justifikaziorik gabe, elkarren segidako hiru saiotara agertzen ez bada besterik gabe organoan duen kargutik kenduko da.

## IDAZKARITZA "FEDERALA"

## 18. ARTIKULUA.

### Idazkaritzaren osaera eta hautaketa

1. Idazkaritza osatuko dute eskualde-idazkariak eta Batzorde Iraunkorrak.
2. Eskualde-idazkarien hautaketa, kargutik kentzea eta ordezkapena Batzorde "Federal"-ari dagokio, Batzorde Iraunkorrak proposatuta, aurrez Nazio Batzordearen adostasuna izanik, hala kopuruari, nola proposatutako edo kargutik kendutako kideei dagokienez. Nolanahi den, Idazkaritzaren izendapena edo berrespena ohiko Kongresu "Federal" bakoitzaren ondoren izango da.

## 19. ARTIKULUA.

### Idazkaritzaren eskuduntzak

1. Idazkaritzari dagokio:
  - a) Negoziazio kolektiboa eta "Federazioa"ren ekintza sindikala garatu eta bultzatzea, Sindikatuaren jardunbideen baitan.
  - b) Hauteskunde sindikalak eta afiliazioa sustatu eta bultzatzea.
  - c) Eskualde-Batzorde "Federalak" gidatzea.
  - d) Eskualde-Batzorde "Federalak" hautatzeko prozesuan afiliatu guztien parte hartzea bermatu eta sustatzea.
  - e) Barne-araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.
2. Idazkaritza gutxienez urtean hirutan bilduko da.



## BATZORDE IRAUNKORRA

### 20. ARTIKULUA.

#### **Batzorde Iraunkorraren osaera eta hautaketa**

1. Kongresua baino bi hilabete lehenago Idazkaritzak Batzorde "Federal"ari proposatuko dio -eztabaida eta onarpenerako- Kongresuan bokatuko den Batzorde Iraunkorrerako hautagai-zerrenda.
2. Kongresu "Federal"ak hautatuko ditu, Batzorde "Federal"ak proposatuta, Batzorde Iraunkorreko kideak, eta adieraziko du zein kargutarako proposatzen dituen; Idazkariak gainera zehaztuko du nortzuk izango diren "Federazio"aren Nazio Batzordeko ordezkariak.
3. Hautagai-zerrenda osorik bozkatuko da; onartua izateko kreditatutako kongresukideen gehiengo absolutuak aldeko botoa eman behar du. Hau lehen bozketan lortu ezean hautagai bakoitza bozkatuko da, baldin eta Batzorde "Federal"ak ez badu erabakitzen Kongresuari talde berri bat proposatzea.
4. Banakako bozketan proposatutako hautagairen batek gehiengo absoluturik lortzen ez badu Batzorde "Federal"ak Kongresuari beste hautagai bat proposatu behar dio. Haatik, Batzorde "Federal"ak baderitza egindako proposamenaren zati bat atzera botatzeak goitik behera aldatzen duela, hautagai-zerrenda osoa erretiratu eta Kongresuari beste hautagai batzuk proposa diezaizkioke.
5. Edonola ere, Batzorde Iraunkorrerako proposatutako kideak eta hautagai-zerrendak aurrez Nazio Batzordearekin adostu beharrekoak dira.

### 21. ARTIKULUA.

#### **Batzorde Iraunkorreko ordezkapen eta ezeztatzeak**

1. Batzorde "Federal"ak, Idazkaritzaren proposamenez, osatuko ditu Kongresu arteko epealdian Batzorde Iraunkorrean gertatzen diren hutsuneak, aurrez Nazio Batzordearekin adostuta.
2. Batzorde "Federal"ak, Idazkaritzaren proposamenez, Kongresuan Batzorde Iraunkorreko kide bakoitzari esleitu zaizkion eginkizunak alda ditzake. Halaber, ordezkari ditzake Federazioari Nazio Batzordean dagozkion kideak.
3. Idazkaritzak, Idazkaritzak, arrazoi larria tarteko eta kideen bi hereneko gehiengoz, Batzorde "Federalari" proposatu ahal izango dio Batzorde Iraunkorreko kide bat kargutik kentzea, eta organo horrek ebatzi arte haren funtzioak behin-behinean eteteko ahalmena du. Ezeztatze erabakia onartzeko Batzorde "Federal"aren bi herenen aldeko botoa behar da.
4. Artikulu honetan ezarritako ordezkapen- eta ezeztatze-ahalmena gauzatzeko, betiere, aurrez Nazio Batzordearen adostasuna beharrezkoa da.

### 22. ARTIKULUA.

#### **Batzorde Iraunkorraren eskuduntzak**

1. "Federazioa" kudeatu eta gidatzea Kongresuan erabakitako helburu eta ildo nagusien arabera.

2. Erresistentzia-Kutxako kalteordain eskariak aztertu eta, hala badagokio, Sindikatuaren Batzorde Eragileari jakinaraztea.
3. Araudi honetan aitortzen zaion eskuduntza oro.
4. Batzorde Iraunkorra gutxienez hilean behin bilduko da.

## ESKUALDE-BATZORDE "FEDERAL"AK

### 23. ARTIKULUA.

#### **Eskualde-Batzorde "Federal"en osaera eta hautaketa**

1. Eskualde-Egitura Profesionalak ("Eskualde-Federazioak") dira Industria eta Eraikuntza Federazioak bere buruari eman dizkion egiturak lurralde mailan antolakuntza eta ekintza sindikala erraztu eta indartzeko. Eskualde-"Federazioa" gidatuko du Eskualde-Batzorde "Federal" batek, eta hau eskualdeari atxikitako idazkari "Federal"ek koordinatuko dute.
2. Eskualde-Batzorde "Federal"ak honako kideek osatuko dituzte:
  1. Eskualde-"Federazio"ko arduradunak edo arduradunek; idazkari izendatuko direnak eta eskualdea ordezkatzeko dutenak
  2. Eskualde-"Federazio"ko ETEetako arduradunak.
  3. Lanaldi osoz liberatutako jendea, baita lanaldi partziala dutenak ere, hainbat ordezkariaren ordu sindikalak metatzen dituztenean bere jardura lan-zentro ezberdinetan batik bat eskualdean garatzeko.
  4. 25 afiliatu edo gehiago dituen Atal Sindikal bakoitzeko ordezkari bana, gutxienez. Beste kide bat izendatu ahal izango du atal sindikalak 100 afiliatu baino gehiago badu.
  5. Aurreko afiliatu kopuruaren baldintza bete ez arren idazkari "federal"ak proposatzen dituen lan-zentroetako ordezkariak.
  6. Eskatzen duten eta aktibo diren afiliatuek, honako eskakizunak betetzen dituztenean:
    - i. Afiliatuta gutxienez urtebete izatea. Eskualde-Batzorde "Federal"ak, salbuespenez, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta kasuan kasu, organoko kide izateko antzintasun eskakizuna salbuetsi dezake.
    - ii. Sindikatuan afiliatuta gutxienez bi urte daramaten Eskualde-"Federazio"ko kideen berariazko sostengua jasotzea -horretarako inprimaki bat sinatuz-, honako eskalaren arabera:
      - a) Eskualde-"Federazio"ak 1.000 afiliatu arte baditu: 15 lagunen berariazko sostengua
      - b) 3.000 afiliatu arte, 30 lagunena
      - c) 5.000 afiliatu arte, 40 lagunena
      - d) 8.000 afiliatu arte, 45 lagunena
      - e) 8.000 afiliatutik gora, 50 lagunena

Federazioaren kongresu arteko aldian afiliatu bakoitzak beste bi afiliaturi eman ahal izango dio sostengua.
    - iii. Organoak berak onartzea kideen gehiengo osoz.



3. 2. artikuluko D, E eta F atalen baitan organoko kide izan daitezkeen enpresa bereko langileak ezin dira Organoko kide guztien % 5 baino gehiago izan. Kasu honetan, enpresako afiliatuek hautaketa demokratikoz erabakiko dute Eskualde-Batzorde "Federal"ean nortzuk sartuko diren. % 5eko portzentajea ez da aintzat hartuko kopurua kide bat edo birekin gaindituko balitz.

## **24. ARTIKULUA.**

### **Eskualde-Batzorde "Federal"en eskuduntzak**

1. Eskualde-Batzorde "Federal"en eginkizunak honakoak dira:
  - a) Lurralde mailan Industria eta Eraikuntza Federazioaren antolakuntza eta ekintza sindikala erraztu eta indartzea.
  - b) Eskualde "Federazio"aren Kongresuko eta Batzorde "Federal"eko ordezkariak hautatzea.
  - c) Eskualde-Batzorde "Federal"en funtzionamenduko eta kideak hautatzeko arau orokorrak finkatu.
  - d) Lanbidearteko Eskualde-Batzordeari Eskualde "Federazio"aren lan-plana proposatu.
  - e) Araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.

## **25. ARTIKULUA.**

### **Atal sindikalak**

Atal sindikalek elkartzen dituzte enpresa edo lan-zentro jakin bateko afiliatuak. Eratzeko, jarduteko eta arduradunak hautatzeko arauak Sindikatuaren Estatutuetakoak eta hauek garatzen dituzten Araudikoak izango dira, zein Batzorde "Federal"ak ezarritakoak. Batzorde "Federal"ak emandako arauak ezin dira haiekiko kontrajarriak izan.

## **26. ARTIKULUA.**

### **Nazioarteko afiliazioa**

1. Industria eta Eraikuntza federazioa honako nazioarteko erakundeetako kide da: INDUSTRIALL Global Trade Union, INDUSTRIALL European Trade Union, Eraikuntza eta Zuraren Langileen Nazioarteko Federazioa (FITCM) eta Eraikuntza eta Zuraren Langileen Europako Federazioa (FETCM-EFBWW).
2. Idazkaritzak honen inguruko edozein aldaketa erabaki dezake. Erabakiak Sindikatuaren oniritzia izango du eta Batzorde "Federal"ak berretsi behar du.

## **27. ARTIKULUA.**

### **Aurreikusi gabeko egoerak**

Egoeraren bat nola ebatzi behar den barne-araudi honetan adierazten ez bada Batzorde "Federal"ak hartuko du hari buruzko erabakia.

## **28. ARTIKULUA.**

### **Barne-araudiaren erreforma**

1. Araudi honen aldaketa Batzorde "Federal"ari dagokio, Idazkaritzaren proposamenez.

2. Aldaketa-proposamena Batzorde "Federal"eko kideek gutxienez hamabost egun lehena-go ezagutu behar dute. Hura gauzatzeko Batzorde "Federal"eko kideen bi herenen aldeko botoa beharrezkoa izango da.
3. "Federazio"aren barne-araudia ez da indarrean sartuko Nazio Batzordearen oniritzia izan arte.

## **29. ARTIKULUA.**

### **Desegitea**

1. Industria eta Eraikuntza Federazioa desegitea, hala badagokio, xede horrexekin deituta Kongresu "Federal" batek erabaki du, Sindikatuaren Estatutuetako 53.1 artikuluan ezarritako kasuan izan ezik. Batzorde "Federal"ari dagokio deialdia egitea, aurrez Nazio Batzordearekin adostuta.
2. Desegiteko erabakia gauzatzeko emandako botoen hiru laurdeneko gehiengoa behar da, betiere gutxienez Kongresu "Federal"erako hautatutako pertsonen bi heren adina badira.
3. Industria eta Eraikuntza Federazioak izan litzakeen ondasun eta eskubideak Sindikatuaren esku geratuko dira.

# KUDEAKETA TXOSTENA

## 1. Sarrera

Kudeaketa txosten honen helburua Industria eta Eraikuntza Federazioaren Kongresuaren aurrean kontuak aurkeztea da, azken lau urteetan egindako lana modu kolektiboan ebaluatuz. Aldi berean, gure erakundeak lan munduan krisi eta eraldaketa esanguratsu ugari markatutako aldi honetan duen eginkizunari buruz hausnartzeko aukera da.

Bizitzaren arlo guztietan kapitalaren logikak gero eta indar handiagoz nagusitzen diren ziklo politiko eta ekonomikoan gaude. Digitalizazioak, finantzarizazioak, negozioazio kolektiboaren aurkako patronalaren erasoaldiak eta gero eta prekarioagoak diren enplegu-formen finkapenak, langileentzako desjabetzea dakarren egiturazko agertokia osatzen dute. Industriaren eta eraikuntzaren sektore eta azpisektore askotan, dinamika horien ondorioz, azpikontratazioa, plantillen etengabeko errotazioa, zeregin askoren ikusezintasuna, duintasunik gabeko baldintzak -adibidez, estatuko hitzarmenetan, baina ez modu eksklusiboan- eta lan-harremenen gero eta indibidualizazio handiagoa ematen dira.

Horri, kapitalaren interesak era sistematikoan lehenetsi dituen azkenaldiko krisien kudeaketa politikoa gehitu behar zaio. Lan erreformek, Europako funtsen aplikazioak edo pandemiari emandako erantzunak, besteak beste, negozioazio kolektiboa ahultzea, sindikatuen esku hartzeko gaitasuna murriztea eta enpresa handien boterea indartzea bilatu duen eredia sendotu dute. Hori guztia, gainera, erakundeek gehiengo sozialei erantzunik ematen ez dieten, eta frustrazioak eta desengainuak lagunduta eskuin muturrak aurrera egiten duen gero eta deslegitimazio demokratiko handiagoko testuinguruan gertatzen da.

Egoera horren aurrean, ELA-Industria eta Eraikuntza bere esku hartzeko gaitasunari eusten eta hori zabaltzen saiatu da, lantokietako antolaketa indartuz, negozioaziorako berezko esparruak defendatuz eta, kasu askotan, benetako esplotazio baldintzei aurre eginez. Jardunbide sindikal hori ahalegin kolektibotik, sormenetik eta, batez ere, gure erakundeko kideen konpromiso militante sakonetik eraiki da.

Txosten hau hasteko, maitasunez eta esker onez gogorarazi nahi ditugu ziklo honetan hil diren lankideak. Kasu batzuetan, pandemiaren gogortasunak ez zuen agur bat egitea ere ahalbidetu. Pertsona horiei guztiei, eta haiekin borrokak, adiskidetasuna, maitasuna eta militantzia partekatu zituztenei, gure memoria eta gure aintzatespena eskaintzen dizkiegu.

Era berean, eskerrak ematen dizkiegu sindikatuaren egunerokotasunari baldintza zailetan eutsi dioten Industria eta Eraikuntzako delegatu eta militante guztiei: lantokietan aurpegi emanez, borrokak bultzatuz, batzarrak antolatuz, testuinguru zailetan negoziatuz eta ekintza kolektiboari eutsiz. Txosten hau, batez ere, eguneroko konpromiso horren isla da. Eskerrik asko.

Kudeaketa txosten honek 2022ko ekainetik -aurreko kongresua egin zen data- 2025eko martxora bitarteko aldia barne hartzen du. Bere orrialdeetan, funtsezko arloetan egindako lanaren azterketa jasotzen da, hala nola afiliazioa, hauteskunde sindikalak, antolaketa, zerbitzu juridikoak, laneko osasuna eta negozioazio kolektiboa. Dokumentua amaitzeko, gure federazioak datoen urteetan aurrean izango dituen erronka eta desafio nagusiei buruzko hausnarketa egiten da.

## 2. Gatazkak asko handitu diren arren, negozioazio kolektiboa bultzatu ahal izan dugu

Kongresu arteko aldi honetan, eta KPlaren igoera handiak nagusi diren testuinguru honetan, negozioazio kolektiboak izan duen bultzada nabarmena azpimarratu behar dugu.

Aipatutako KPlaren igoerak, lan karga handiekin eta enpresen irabazi handiekin batera, lan baldintzak hobetzearen alde borrokatzeko motibazioa handitu du. 2022an eta 2023an, Hego Euskal Herria aberastasunaren banaketa bidezkoagoaren aldeko borrokaren abangoardia bihurtu zen. Erakunde osoak erakutsitako dinamismoaren ondorioz, greba-kopurua Estatuko gainerako lurraldeetan erregistratutakoa baino handiagoa izan zen. 2025. eta 2026. urteetan, ziklo honetan bultzatutako negoziazio kolektibo askoren indarraldia amaitu egingo da, eta, beraz, berrikuntza horiei aurre egiteko prestaketa prozesu betean gaude gaur egun.

Kongresu aldi honetan zehar, negoziazio kolektiboa hobetzeko tresna berriak eskuratu ditugu. Jarraian aipatuko ditugu:

- Negoziatioari aurre egiteko beharrezko klausula guztiak biltzen dituen plataforma-eredua.
- Etapa bakoitza aztertuta prozesua urratsez urrats prestatzeko aukera ematen duen plangintza-dokumentua.
- Dokumentu politikoa, negoziatioaren funtsezko alderdiak eztabaidatzeko baliagarria.
- Prekarietate-mapak egiteko informazioa ere ematen duen lantokietarako inkesta-eredua.
- Sektorearen edo enpresaren azterketa errazten duen eta lanpostuetan egon daitezkeen diskriminazio-egoerak identifikatzen laguntzen duen diagnostiko-inkesta.
- Gure aldarrikapenak legezko betebeharretatik bereizten dituen konparazio-taula, gutxieneko edukiak ezagutzeko eta gure plataformarekin kontrastatzeko aukera emanez.

Gainera, negoziatioak lehenago hastearen alde egin dugu. Uste dugu egokia dela diseinua gutxienez urtebete lehenago hastea, izan ere, horrela estrategia sendoagoak egin ditzakegu eta langileak sakonago inplikatu. Ildo horretan, bereziki nabarmendu nahi dugu negoziatio kolektiboko kabinetearen lana, negoziatio prozesua hasi aurretik enpresa bakoitzaren egoerari buruzko funtsezko diagnostikoak eskaintzen baitizkigu.

Plangintza aurreratuari, KPlaren igoerari eta gure atal sindikalen antolaketa indartzeari esker, hitzarmen kolektiboak nabarmen berritu dira.

Gatazkak areagotu izanak hitzarmen ugari sinatzea ekarri du. Hori ez zen posible izango gure sindikatuaren erresistentzia solidarioko kutxarik gabe. Argi dago Hego Euskal Herriko lan-merkatua Espainiako Estatukoaren oso bestelakoa dela. Gure herrialdean, inposatu nahi dizkiguten politika neoliberaleri aurre egiteko kultura borrokalaria eta antolatze gaitasuna dago. Greba tresna naturalizatua da lan munduan, eta borrokaren erreferenteak etengabeak dira.

Egoera hori erabat kontrajartzen da Estatuan gehiengoa duen eta era sistematikoan amore ematen duen eta langileria antolatzeari uko egiten dion sindikalismoaren jardunarekin.

Jarraian, 2022-2025 aldian (2025eko ekainaren 9ra arte) negoziatio edo enpresa gatazketan zehar erresistentzia kutxa erabiltzeko eskaerak zehazten dira:

### Erresistentzia Kutzaren Eskaerak

|                | 2022      | 2023      | 2024      | 2025      |
|----------------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Araba          | 17        | 7         | 5         | 7         |
| Gipuzkoa       | 15        | 24        | 18        | 10        |
| Bizkaia        | 36        | 22        | 27        | 12        |
| Nafarroa       | 11        | 16        | 14        | 10        |
| <b>Guztira</b> | <b>79</b> | <b>69</b> | <b>64</b> | <b>39</b> |



Aurreko taulatik ondoriozta daitekeenez, grebak, tresna gisa, indar osoz jarraitzen du Hego Euskal Herrian. Askotan, hain zuzen ere, greba deitzeko eta bat egiteko gaitasunak behartzen du patronala akordioak lortzeko eduki garrantzitsuak mahai gainean jartzera. Askotan, gure lankideek ez dute deialdia aktibatu ere egin behar izan, patronalak jakin bazekielako antolatzeke gaitasuna zutela.

Azken urteotan, negoziazio bakoitzari garaiz eta perspektibaz helduz, beharrezko edukiak gizarteratzea lortu dugu, ELAk hitzarmen bat adostu ahal izateko. Funtsezkoa da sektore edo enpresa batean lan egiten dutenek argi ezagutzea bere borrokaren helburuak. Horregatik, ELAk gainerako sindikatuak jakinarazi die gutxienekeo sinadura-edukiak adostu nahi ditugula negoziazio-prozesu askotan. Zorritzarrez, gainerako erakunde sindikalek era sistematikoan baztertu dute inolako konpromisorik hartzea.

Konpromiso falta horrek mesede egiten dio, nahitaez, enpresaren aldeari. Sindikatuen zehaztasun faltak eta denboraren joanak negoziazio-plataformak higatzen dituzte azkenean, eta pixkanaka desegin egiten dira, patronalen jarreretara hurbildu arte. Azkenean, hilabete batzuk atzerago onartezintzat jotzen ziren edukiak sinatzen dira, eta jendaurrean adierazten da “borroka honaino iritsi dela” eta une horretan eskaintzen dena onartu behar dela.

Hego Euskal Herriko metalaren sektoreko hitzarmenek ondo baino hobeto erakusten dute negoziazio-logika hori. Gainerako sindikatuak ez dute lortu beharreko helburuei buruzko konpromiso argirik hartu, eta, Araban eta Bizkaian, deitutako grebetan langileek era aktiboan parte hartu ondoren, CCOO, UGT eta LABek patronalaren interesekin argi eta garbi bat datozen akordioak sinatu dituzte. Bizkaiko metalaren hitzarmenaren kasuan, gainera, akordioak, merezi ez duen protagonismoa hartu duen eta gatazka hasi zenetik argi eta garbi enpresen interesen alde agertu zen Eusko Jaurlaritzaren babesa izan du.

Bi hitzarmen horiek sinatu dituztenek “historikotzat” jo dituzte, metalurgiako langileen harrihurturako. Hala ere, akordio horiek erosteko ahalmenaren benetako galera ekarri dute, KPlaren susperraldia atzerapenarekin baitator, atzerapenak ordaindu gabe, eta lan eskubi-deetan aurrerapen esanguratsurik egin gabe.

Horren aurrean, 2023an ELAk askoz baldintza hobeak dituen Gipuzkoako metalaren hitzarmena adostu zuen: soldadak Arabakoak eta Bizkaikoak baino % 20 eta % 47 artean handiagoak, lanaldi murriztagoa, subrogazio eskubidearen aitorpena, lan erreformen aurreko blindajea, eta hobekuntza ugari gehiago. Hala ere, LABek eta CCOOk uste zuten eduki horiek ez zirela nahikoak. Benetan zaila da jarduteko modu hori zorrotasun minimo batekin aztertzea.

Nafarroako metalaren hitzarmena UGT eta CCOO sinatu zuten, CENekin batera. ELA herrialde horretako sektoreko lehen sindikatua bada ere, erregimenaren sindikatuak negoziazioa bileren segida soil gisa ulertzen jarraitzen dute, eta, aurreikuspenak betez, patronalak ematea erabakitzen duena onartzen dute. Blindaje-klausularik ez dagoenez, hitzarmen horrek, enpresek hala erabakitzen dutenean baldintzak ez aplikatzea ahalbidetzen du.

ELAk, Jose Luis Rodríguez Zapateroren eta Mariano Rajoyren gobernuak inposatutako lan erreforma negargarriak ezabatzeko konpromiso sendoa du. Azken urteotan, beharrezkoak diren klausulak txertatu ditugu bai sektore- bai enpresa-hitzarmenetan, horien ondorioei aurre egiteko. Ekimen horrek gainerako sindikatuarekin alderatuta alde nabarmena markatzeko aukera eman digu. Harritu egiten gaitu gaur egun oraindik 2011 baino lehenagoko lan baldintzak ez aplikatzearekin erlacionatutako klausulak dituzten itunak edo hitzarmenak sinatzea, “blindatu” gisa aurkeztuz. Askotan indarrean dagoen legeriak ematen dizkion pribilegioei atxikita jarraitzen duen patronalaren jarrerak gure hitzarmenak eduki sendo eta bermatzailez hornitzen jarraitzeko beharra indartzen du.

Negoizi sektorialaren eremuan, Gipuzkoan eta Nafarroan bakarrik lortu dugu hitzarmen kolektiboak adostea. Nafarroan, ELAk, langile gutxi batzuei eragiten dieten egurraren indus-

triaren eta gozotegien hitzarmenak sinatu ditu, baina horiek berritzea ere garrantzitsutzat jotzen dugu. Gipuzkoan akordio garrantzitsuak lortu ditugu, hala nola metalarena, metalaren merkataritza -hamabost urteren ondoren berreskuratua- eta eraikuntzarena. Aldiz, pape-raren, arte grafikoen edo egurraren industriaren sektoreetan ez dugu hitzarmenik sinatu, eduki nahikorik ez zutelako.

Bereziki nabarmendu nahi dugu Bizkaiko arte grafikoen sektorearen egoera. Txosten hau idazteko unean, 12 greba-egun egin dira. CEBEK patronalak urteak daramatza hitzarme-na desegin edo haren baldintzak nabarmen okertuta berritu nahian. ELAk gehiengo osoa du sektorean, eta errealitate horrek eragotzi egin du patronalak bere helburuak ezartzea, probintziako beste hitzarmen batzuetan egin duen bezala. Ezarritako helburuak lortu arte jarraituko dugu borrokan, mobilizatzeko eta erresistentziarako gaitasun handia erakusten ari den sektorean.

Dagoeneko 12 urte igaro dira federazioa sortu zenetik, eta, hala ere, Araban eta Bizkaian ez dugu lortu sektoreko hitzarmenik adostea. Bi herrialdeetako patronalek euren baldintzak ezartzeko helburuarekin jotzen dute negoziazio bakoitzera, eta, zoritxarrez, gainerako sin-dikatuarekin lortutako akordioen bidez, euren neurrira egindako itunak lortu dituzte.

## **Eraikuntza**

Eraikuntzaren sektoreari dagokionez dugun kezka erabatekoa da. Alde batetik, enpresen egoera -bereziki enpresa handienena- oso positiboa da. Obra publikoak lizitatzen jarraitzen da, eta higiezinaren sustapen berrien prezio neurrigabea etekin handiak sortzen ari da. Bestal-de, lanpostuan bizia galdu duen langile kopuruak amorruz betetzen gaitu.

Sektorean nagusi den enpresa-kulturaren arabera, helburu bakarra onura ekonomikoa da. Logika horren ondorioz, sektorearen zati handi batean ez dira hitzarmen kolektiboak erres-petatzen, eta ez da laneko legeriarik oinarritzat hartzen. Obra lizitatu ondoren, hainbat azpikontrataren arteko karrera hasten da, lana ahalik eta azkarren eta merkeen egiteko, eta lanaldiak inolako mugarik gabe luzatzen dira. Gainera, sektorean lan egiten duten pertsona asko migratzaileak dira, eta, askotan, ez dituzte euren eskubideak ezagutzen, enpresek eskrupulurik gabe ustiatzen duten zaurgarritasun egoera, alegia.

Testuinguru horretan, balioa eman nahi diogu eraikuntzaren sektoreko gure arduradunen lanari. Lantoki askotan nagusi diren prekarietateak eta beldurrak izugarri zailtzen dute lan sindikala, baina, hain zuzen ere, horregatik da beharrezkoa eta baliotsua arlo honetan egiten dugun lana.

Kongresu arteko aldi honetan, sektoreko baldintzarik onenak jasotzen dituen Gipuzkoako hitzarmen probintziala adostu dugu. Araban, Bizkaian eta Nafarroan, ordea, CCOO-k eta UGT-k duten gehiengoak negoziazio kolektiboa pobretzen du, eta, ondorioz, argi eta garbi nahikoak ez diren lan-baldintzak dituzten hitzarmenak sortzen dira. Ildo horretan, patrona-lak, CCOO-k eta UGT-k soldaten kapitulua faltzuan itxi ondoren 2023an Bizkaiko eraikuntza sektorean deitutako grebak nabarmendu nahi ditugu. Gure militanteek aurrera pausoa ematen eta sektorea aktibatzen jakin zuten, mobilizazioa eta gatazka sortuz.

Gipuzkoako errepideen mantentze-lanen sektorearen dinamismoa ere azpimarratu behar da. Talde militante sendo eta konprometituari esker, sektoreko ordezkaritza sindikal ia osoa geureganatzea lortu dugu. Sortutako gatazkei esker, enpresa mailako hitzarmen berriak sinatu dira, eta nabarmen hobetu dira langileen bizi-baldintzak.



## **Estatalizazioaren aurka borrokan**

Erabakitasunez jarraitu dugu lanean gure jendearen lan-baldintzak Euskal Herrian negoziatzearen. Estatuko esparrua haustea ez da batere erraza. Jarraian, bi hitzarmen aipatuko ditugu. Horietan zentratu gara bereziki gure lurralde-eremuan negoziazio-bideak irekitzeko ahaleginetan.

Lehenengoa, Hego Euskal Herriko 23.000 langile ingururi eragiten dien kimikaren sektorea da. Urteetan zehar arrakastaz bultzatu dugu enpresa-arloko negoziazioa, eta estatuko hitzarmena ahalik eta gutxien aplikatzea lortu dugu. 2023an 2024rako aurreikusitako estatuko hitzarmenaren negoziazioa baldintzatzeko kanpaina bat hastea erabaki genuen, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan negoziazio propioa abian jartzeko.

Gure proposamenari emandako hasierako erantzun sindikala askotarikoa izan zen. EAEn, CCOO, LAB eta UGT sindikatuak alde agertu ziren, eta Nafarroan, berriz, estatuko sindikatuak erabat kontra. Bereziki deigarria izan zen CCOOren bilakaera, EAEn zuen jarrera aldatu baitzuen enpresa-interesekin lerrokatzeko, sektoreko langileei bizkarra emanez.

Confebask eta CEN, berriz, erabat lerrokatuta egon dira estatuko FEIQUE patronalarekin. Gure herriarekiko konpromisoa aldarrikatu arren, aukera izan bezain laster estatu-esparruari eusten diote. Ez diete erantzun negoziazio propioa hasteko bilerak egiteko deialdiei, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian egindako epaiketan -CCOOekin batera- Estatuko hitzarmenaren aplikazioa defendatu zuten.

Nafarroako kontserben sektorean ere egin dugu lan Foru Lurraldeko hitzarmena berreskuratzeke. Batzar ugari egin ditugu gure delegatuekin, eta enpresetan, batez ere Erriberan, hauteskundeetan lortzen ari garen babes sendoak enpresek, UGTk eta CCOOk bultzatutako eredu estatalak prekaritatea baino ez duela ekarri berresten du.

Bai kimikaren sektorean, bai Nafarroako kontserben sektorean, borrokak aurrera jarraitzen du. Hala ere, gure militanteen lanari esker, gero eta zailagoa da lantokietan defendatzea estatuko hitzarmenaren aplikazioak balio positiboren bat duenik langileentzat.

Enpresaren negoziazioan ere jasaten ditugu negoziazioa langileetatik urruntzen duen dinamikaren ondorioak. Adibide paradigmaticoa bat Iberdrolarena da: urtean 5.000 milioi euro baino gehiagoko irabaziak dituen enpresa, urtez urte bere langileak txirotzen dituen bitartean, argi eta garbi kaltegarria den estatu mailako enpresa-hitzarmenaren bidez. ELAtik, Hego Euskal Herriko langileak aktibatzea lortu dugu, oso jarraipen zabala izan duen greba egun bat deituz.

## **Hego Euskal Herriarentzat gutxieneko soldata propio baten alde lanean**

Kudeaketa txosten hau egiten ari garen unean, gure militanteak era aktiboan daude inplikaturik Hego Euskal Herriarentzat gutxieneko soldata espezifiko eskatzeko sinadura bilketan. Argi dago estatuko gutxieneko soldata ez datorrela bat gure gizarte- eta lan-errealitatearekin.

Ilusioz eta konpromisoz hartzen dugu helburu hau, batetik, lan baldintza txarrenak jasaten dituztenen bizitza duintzea bilatzen duelako eta, bestetik, subiranotasunerako ariketa delako.

### **3. Prekarietatearen kontrako borroka gure antolaketa-lanean txertatuz**

Lan prekarioaren aldeko apustua patronalaren estrategia deliberatuaren parte da. Horri gero eta lan-merkatu malguagoa eta jarrera pasiboari eusten dion lan-ikuskaritza errazten duen lege-esparrua gehitu behar zaio, eta horrek ere erabaki politiko bati erantzuten dio. ELAk behin eta berriro eskatu du ikuskaritza bitarteko gehiagorik eta bultzada politiko berri batez hornitzea, eraginkortasuna indartzeko. Hala ere, gure eskaerak alperrikakoak izan dira.

Testuinguru horretan, azken urteotan ia 300 prekarietate-plan egin ditugu lantokietan. Egia da zailtasunak izan ditugula erabat garatzeko. Alde batetik, negozioak kolektiboari lotutako gatazken gorakadak eguneroko ekintza sindikalaren zati handia xurgatu du. Bestetik, lan-karga orokorrekin zaildu egin dute abian jarritako plangintzak aurrera eramatea.

Hala eta guztiz ere, oso baliotsuak izan dira gure militanteekin izan ditugun saioak, prekarietateari aurre egiteko prestatutako gidak elkarrekin aztertu ahal izan ditugulako: legez kanpoko lagapenetik kontratazioko iruzurreraino, besteak beste.

### **4. Afiliazio handiagoa, bidezkoagoa eta anitzagoa**

Industriak enplegua galtzen jarraitzen duen eta enpresen itxierak etengabe gertatzen diren testuinguru orokorrean, gure federazioak 456 afiliatu gehiago ditu kongresu arteko azken aldian. Albiste bikaina da.

Dagoeneko 6.949 emakume afiliatu daude, eta lau urte hauetan 469 afiliazio gehiago izan dira. Bereziki nabarmendu nahi dugun datua da, hazkunde hori gehienbat gure federazioko sektore prekarioenetatik baitator.

Migratutako pertsonak ere gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira gure afiliatuen artean, bereziki kontserba begetalen sektorean, gure militantziaren zati handi bat osatzen baitute.

Lau urte hauetan, gure afiliazioa hazi ez ezik, bidezkoagoa eta anitzagoa ere egin da. Albiste bikaina da, zalantzarik gabe.



### ELA Industria eta Eraikuntza V-2022 afiliazio balantzea; V-2025, eskualdeka

|                     | V-2022       | V-2025       |
|---------------------|--------------|--------------|
| Gasteiz             | 5440         | 5657         |
| Urola-Kosta         | 1759         | 1742         |
| Deba                | 2680         | 2561         |
| Oria-Goierrri       | 4298         | 4171         |
| Oarso-Bidasoa       | 2213         | 2286         |
| Donostia            | 990          | 912          |
| Lizarra             | 240          | 287          |
| Sakana              | 701          | 683          |
| Erribera            | 1295         | 1479         |
| Tafalla             | 373          | 450          |
| Iruñea              | 2980         | 3107         |
| Gernika-Durango     | 3383         | 3350         |
| Ibaizabal-Nerbioi   | 3969         | 3978         |
| Eskumaldea          | 3381         | 3391         |
| Ezkerraldea-Kadagua | 3459         | 3512         |
| Bilbo               | 1379         | 1430         |
| <b>Guztira</b>      | <b>38540</b> | <b>38996</b> |

### ELA Industria eta Eraikuntzaren afiliazio balantzea 2022-2025eko maiatza, afiliazio-pisu handieneko sektoreetan:

|                   | V-2022 | V-2025 |
|-------------------|--------|--------|
| Metala            | 20.855 | 21.300 |
| Eraikuntza        | 2.692  | 2.568  |
| Metalaren M.      | 704    | 739    |
| Kimikak           | 2.733  | 2.961  |
| Paperaren Ind.    | 673    | 701    |
| Arte grafikoak    | 777    | 840    |
| Logistika         | 766    | 780    |
| Elikaduraren Ind. | 916    | 1.036  |
| Kontserbak        | 498    | 622    |

Afiliazioaren hazkunde horren atzean sindikatua osatzen dugunon lan militante handia dago. Atal sindikalekin egindako bileretan afiliazioa lantzen dugu berariaz, eta gure enpresa txiki eta ertainetako eta eraikuntzako taldeek egindako bisita- eta aholkularitza-lana nabarmendu nahi dugu.

## 5. Hauteskunde sindikalak: Hego Euskal Herriko lehen sindikatua

Kongresu arteko aldi honetan berriro berretsi dugu gure lidergoa Hego Euskal Herrian. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan lehen sindikatua gara.

Lau herrialdeetan nabarmen handitu da delegatuen kopurua. EAEn gure ordezkaritza handitu dugu, eta bereziki nabarmendu nahi dugu Nafarroan izan dugun emaitza, ia bi puntuko hazkundera lortu baitugu.

### Ordezkaritza:

|            | V-2022       | V-2025       |
|------------|--------------|--------------|
| Araba      | 37,25        | 37,86        |
| Gipuzkoa   | 46,82        | 45,40        |
| Bizkaia    | 38,22        | 39,22        |
| EAE        | 40,87        | 40,99        |
| Nafarroa   | 26,97        | 28,93        |
| <b>HEH</b> | <b>36,87</b> | <b>37,39</b> |

### ELAren zerrendetan hautatutako delegatu kopurua:

|            | V-2022       | V-2025              |
|------------|--------------|---------------------|
| Araba      | 571          | 638 (+67)           |
| Gipuzkoa   | 1.126        | 1.154 (+28)         |
| Bizkaia    | 1.266        | 1.311 (+45)         |
| EAE        | 2.963        | 3.103 (+140)        |
| Nafarroa   | 789          | 930 (+141)          |
| <b>HEH</b> | <b>3.752</b> | <b>4.033 (+281)</b> |

Azken lau urteetan, delegatu kopuruaren hazkundera oso esanguratsua izan da. Gero eta gehiago gara, eta gure federazioko ordezkari gisa aritzen diren 4.000 pertsonako zifra gainditu dugu.

Gatazkek, negoziazio kolektiboak eta enpresa-itxieren aurkako borroka gure denboraren zati handia hartzen dute, baina hauteskunde sindikalekin erlazionatutako lanari sistematikotasunez heltzen jakin dugu. Funtsezkoa da prozesu hori gutxienez urtebete lehenago planifikatzea.

Azkenik, gure esker ona adierazi nahi diegu enpresetan ELA ordezkatzten duten pertsonen. Haien lana funtsezkoa da, eta zuzendaritzen aldetik presio handia jasaten dute. Bai batzordea duten enpresetan, bai enpresa txiki eta ertainetan, gure militantzia da gure bermerik onena.



## **6. Gure jendearen enplegua defendatuz**

Zapateroren eta M. Rajoyren gobernuek bultzatutako lan-erreformek sakon aldatu zuten lan-merkatua. Kaleratzea merkeagoa bihurtu zen, errazagoa, eta prozesuaren kontrol baka-rra epaileen esku geratu zen. Enpresek, errealitate horren jakitun, helburu argiarekin hasten dira espedienteak negoziatzen: langileen ordezkarien sinadura lortzea.

Enpresetako aholkulari batek aitortu zigun espedienteen negoziazioak desberdinak direla ELA bertan badago. Hori horrela da erreformek ezarritako logikari ihes egiten diogulako. Logika horretan, sindikatuak, hilabete eta erdi baino gutxiagoan, edozein kaleratze ez onar-tzetik enpresa ixtea adostera igarotzen dira. Negoziazio-prozesu "zail" gisa aurkezten da benetan zuzendaritzak aurrez erabakitako edukiak onartzea baino ez dena. Beste sindikatu batzuek kaleratzeak adosten eta enpresa-jarrera aldatzen ez duten mobilizazioak aukeratzeko duten erraztasunak atsekabez betetzen gaitu.

ELAk ulertu du arrazoiak eztabaidatu behar direla, grebak eta mobilizazioak aktibatu behar direla, eta, azken batean, enpresaren bide orria aldatu behar dela. Hori da industria proiektuak, enpleguak salbatzeko edo, kasurik okerreanean, enpresa-erabakiak garestitzeko modurik onena.

EREen eta konkurtsoen kontrako taldeak askoz eraginkorrago egin gaitu. Prozesu bakoitze-tik ikasten dugu, enpresa-aholkularitzen jarduteko modua ezagutzen dugu eta gure erantzun-ak hobetzen ditugu.

Itxierara bideratutako enpresak berreskuratzeko lanari ere ekin diogu. Gure jendeak bere lanpostua baldintza duinetan eta gizarteari ekarpena egingo dion jarduerarekin eutsi ahal izateko lehen urratsak dira.

## **7. Antolaketa-lana da sindikalismoaren oinarria**

Kongresu arteko aldi honetan gure federazioan betidanik egin dugun antolaketa lanari jarraipena eman nahi izan diogu. Helburua izan da gure atal sindikalei kalitatezko denbora eskaintzea, gero eta eraginkorragoak izan daitezen eta euren potentziala ahalik eta gehien aprobetxa dezaten.

Konfederazioaren eskutik, atal sindikal bakoitzaren bilakaera neurtzeko aukera ematen duen material espezifikoak prestatu da, afiliatuek sindikatuaren bizitzan gero eta inplikazio handia-goia izan dezaten. Idazkaritzako arduradunek lau modulutan egituratutako prestakuntza jaso dute, eta, ondoren, ehunka delegatu prestatzeko erabili dute.

Era berean, ahalegina egin dugu sindikatuko arduradunek ahalik eta denbora gehien eman dezaten delegatuen prestakuntzan. Helburua argia da: gure atal sindikalak gero eta hobeto prestatuta egotea euren lankideen beharrei erantzuteko.

Antolaketa lanetik militantzia sortzen da. Hilero, atal sindikalekin egiten dugun bilera bakoitzean gaurkotasuneko gaiak era kolektiboan aztertzeko aukera ematen digun koiuntura prestatzen dugu.

Gure ekintza sindikala enpresa bakoitzaren errealitate zehatzetara egokitzearen adibide gisa, dibertsitate funtzionala duten pertsonak plantillaren gehiengoa direnetan ditugun mi-litanteen lana azpimarratu nahi dugu. Lan eskubideak defendatzeak hurbiltasuna, entzutea eta konpromisoa eskatzen du. Zeregin horretan, enpresa horietako militanteak benetako ereduak dira.

## 8. Laneko osasunerako eskubidea

Aurreko Kongresu Konfederalean salatu genuen aurreko lau urteetan 256 pertsona hil zirela Hego Euskal Herrian lan istripuen ondorioz. Eskandaluzko zifrak dira. Gainera, laneko heriotzen % 13 baino ez dira istripuen ondorio, eta horrek agerian uzten du arazoaren ezkutuko tamaina.

LAB Osalaneko erakunde-organoetara eta Nafarroako Lan Osasunerako Erakundera itzul-tzeak hautsi egin zuen beste erakunde batzuekin adostutako erantzunerako protokoloa, eta hori, zalantzarik gabe, albiste tristea izan zen. Gure ustez, ez da gai horretan administrazio publikoen jarduketa zurrizko unea.

Testuinguru horretan, Bidelagun Fundazioaren sorrera oso esperientzia positiboa izan da. Bere talde juridiko espezializatua erreferente gisa sendotzen ari da, eta gero eta kasu gehiago hartzen ditu bere gain. Nabarmentzekoa da lan istripu larriekin, gaixotasun profesionalekin -bereziki amiantoaren eraginpean egoteagatik-, sexu jazarpenarekin eta arrisku psiko-sozialekin erlazionatutako esku-hartzeen hazkundea. Era berean, negoziazio kolektiboaren ereduak plataforma aberastu dugu, arlo horretan gure atal sindikalen lana erraztuko duten klausulak sartzeko.

Aurrerapenak aurrerapen, oraindik laneko osasunerako eskubidea erabat bermatzetik urrun gaude. Pandemiaren ondoren, laneko osasunaren arloak artatutako intzidentzien kopuruak nabarmen egin du gora. Lan karga handi horrek, kasu askoren konplexutasunak eta osasuna jokoan egoteak frustrazio ulergarria sortzen dute batzuetan, agertzen zaizkigun egoera guztiei nahiko genukeen bezain azkar erantzun ezin izateagatik.

## 9. Genero-berdintasunaren aldeko plan estrategikoa garatuz

Azken hamarkadan, ELA sindikatuak antolaketa genero-berdintasunaren alde eraldatzeko prozesuari ekin dio. Denbora daramagu lanean emakumeenganako desberdintasunak eta egoera diskriminatzaileak sortzen zituen kultura aldatzeko, baita gure erakundearen barruan ere.

Gure federazioan, emakumeen presentzia gutxiengoa da enpresetan, eta, duela hamarkada eskasera arte, sindikatuko talde arduradunetan zuten parte-hartzea ia testimoniala zen. Errealitate hori aldatzen hasi da, bai ETEen taldean, bai Idazkaritzakoan.

Gaur egun, aurrerapen esanguratsua gertatu da federazioaren barruko emakumeen afiliazioan, eta % 17,68ra iritsi da. Enpresetako ordezkartzari dagokionez, gure federazioko delegatu guztien % 17,93 emakumeak dira. Aurrera egiten jarraitzen dugu, baina badakigu bide luzea dagoela egiteko.

Oso era positiboan nabarmentzen ditugu sektore batzuetan garatzen ari garen esperientziak. Horietan delegatuen batzar espezifikoko antolatzen ditugu, haien esperientziak jasotzeko eta haien beharrak entzuteko. Espazio horiek era berezian landu ditugu metalaren negoziazio sektorialen esparruan, eta negoziazio prozesua zein aldarrikatu beharreko edukia aberasten laguntzen ari dira.

Oraindik asko dago egiteko, baina ez zaizkigu falta sindikatu feminista eraikitze lanetan jarraitzeko gogoia eta konbentzimendua.



## **10. Euskarak jasaten duen diskriminazioa desagerrarazteko borroka**

Gure lana, alde batetik, sindikatuaren barruan egin dugu, eta, bestetik, enpresetan, lan eremuan hizkuntza diskriminazioari aurre egiteko.

Sindikatuaren eguneroko jardunean, gure hizkuntzaren erabilera gero eta sendoagoa da. Eskualde eta sektore euskaldunetan komunikazioak eta bilerak euskaraz egiten dira, eta zerbitzu juridikoetan tramite guztiak ere gure hizkuntzan egiteko aukera eskaintzeko plana jarri dugu martxan.

Hala ere, lan munduan, euskarak marjinala izaten jarraitzen du gaztelaniaren aurrean. Kontseiluarekin eta LABekin batera, Confedebarekin eta CENekin akordioa lortzen saiatu gara, lantokietan euskara planak negoziatu ahal izateko esparrua ezartzeko, lanbide arteko akordioak proposatuz. Patronalaren erantzuna, tamalez, ezezkoa izan da.

Egoera horren aurrean, hitzarmen sektorialetan euskara planak egitea errazteko klausula espezifikoak sartzea erabaki dugu, Gipuzkoako metalgintzan eta metalaren merkataritzan gertatu den bezala.

Bistan da oraindik lan asko dugula aurretik euskaraz normaltasunez lan egin ahal izateko.

## **11. Hobeto planifikatu, eraginkorragoak izateko**

Sindikatuan militatzen dugunok badakigu egin beharreko lanak ugariak direla, zorrotzak, eta, gainera, egunero erantzun behar diegula komunikazio kanal ugariaren bidez iristen diren eskaerei.

Urteak daramatzagu plangintzan oinarritutako antolaketa kultura ezartzeko lanean, alde batetik eraginkorragoak izateko eta, bestetik, gure ongizateari hainbeste eragin diezaiokeen desordena saihesteko.

Denbora daramagu hobetzeko arloak identifikatzen, helburuak eta ekintzak planifikatzen eta ondo eta ez hain ondo egindakoak zehaztasun handiagoz ebaluatzen lagunduko diguten sistemak ezartzen. Bilerak dinamikoagoen alde egiten dugu, helburuak zehaztean zentratuta, eta denbora galtzearen sententzia saihestuz. Era berean, gure atal sindikalekin lan egitea errazteko beharrezkoak diren tresna informatikoak hobetzen ari gara.

Badakigu kultura-aldaketak ez direla errazak. Ahalegin pertsonala eta kolektiboa eskatzen dute. Horregatik, egunerokorako tresna gehiago eta hobeak ematera bideratutako prestakuntza zikloa diseinatu duen Kudeaketa Sistemarako talde espezifiko sortu dugu. Oraindik bidea dago egiteko, baina plangintza sendoago eta partekatuagoarekin lan egiteko helburua eztaba daezina da.

## **12. Planetarentzat ezinbestekoa eta langileriarentzat bidezkoa den trantsizio ekosozialaren alde**

Sindikatu osoan trantsizio ekosozial zuzena bultzatzeko ari gara lanean. 2023an, Hego Euskal Herriko energia kontsumoari buruzko azterlan bat egin zen, eta, ondorioetan oinarrituta, ELAren trantsizio ekosozialerako proposamena aurkeztu zen.

2024an proposamen horiek lantokietara eramateko lan espezifikoa egin genuen. Urte bereko ekainean, delegatuei zuzendutako jardunaldi bat egin genuen, Yayo Herreroen parte-hartzearekin.

Sindikatuaren ingurumen arloaren bultzadarekin, gure diskurtsoa eta jarunbidea erabat beharrezkotzat jotzen dugun trantsizioaren inguruan eraikitzen jarraitzeko aukera ematen diguten hainbat dokumentu prestatzen ari gara.

### **13. Nazioarteko aliantzak landuz, gure nazio eta klase ikuspegitik**

Industria eta Eraikuntzak era aktiboan parte hartzen du parte den nazioarteko sareetan, IndustriAll-en batez ere. Estaturik gabeko nazio baten sindikatua garen aldetik, kontrabotereko sindikalismoarekin dugun konpromisoa berresten dugu, internazionalista, inperialismoaren aurkakoa eta herriek determinazio librerako duten eskubidea errespetatzen duena.

Gure nazioarteko harremanei esker, konplizitate loturak ehundu ahal izan ditugu oso gertukotzat jotzen ditugun sindikatuarekin, elkarrekiko konfiantzan oinarritutako harremana baitugu haiekin. Gure sindikatuaren lana nazioartean gero eta ezagunagoa dela uste dugu. Hainbat kongresutan hartu dugu parte, belaunaldi berrikuntzari, sindikalismo borrokariari eta genero berdintasunarekin dugun konpromisoari buruzko esperientziak partekatzeko.

Era berean, aktiboak gara nazioarteko legezkotasunaren eta giza eskubideen aurka egiten duten enpresa jardunbideak salatzeke orduan, baita Euskal Herrian dauden enpresek egiten dituztenean ere. Alde horretatik, eta CAFeko gure atal sindikalaren eskutik, Jerusalemgo tranbiaren proiektuan parte hartzeari uzteko eskatu diogu enpresako zuzendaritzari.

## 1 >>>

### ENPRESAK ETA SEKTOREAK SINDIKALIZATZEAK GURE BIZITZA DUINTZEN DU

Kapitalismoaren helburua ekoizpen baliabideak dituztenek erabakiak inolako trabarik gabe hartu ahal izatea da. Enpresetan, halaber, pertsonak etekina sortzeko sortutako engranajearen beste zati bat bezala hartzen dituzten zuzendaritza-taldeei egin behar diegu aurre.

Sindikatuak, oro har, eta industria eta eraikuntza osatzen dugun sektoreek, bereziki, beti egin dugu lan enpresetan indar sindikala sortzeko helburuarekin. 70eko hamarkadako Eubako eta Eibarko biltzarretatik, lantokietan hobeto antolatzeko moduari buruzko plan-teamenduak egiten diren testuak etengabeak dira. Horregatik, gaur egungo Euskal Herrira egokituz, jarraipena eman behar diogu aurreko hamarkadetan sindikatuko militanteek gure atal sindikalei indarra emateko egin duten lanari.

Sindikatuako arduradunen eta delegatuen denbora mugatua da, eta, beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu plangintza lantzea, gero eta eraginkorragoak izateko.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau erabaki du:

- Azken urteetan egindako antolaketa-lanari jarraipena emango diogu, esperientzia berrietatik ikasiz eta hobetu beharreko gaietan sakonduz. Gure atal sindikalek taldeak sortzea behar dugu, egin beharreko lanak banatzeko. Denborarekin prestatuko diren eta gai zerrenda eta egin beharreko lanak zehaztuko dituen akta izango duten bileren dinamika-ekin jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu.
- Atal Sindikal bakoitzak, arduradun federalarekin batera, bere enpresaren azterketa zorrotza egin behar du. Txanda bakoitzera, kolektibo bakoitzera, azpikontratetako langile bakoitzarengana iristea lortu behar dugu, eta bi noranzkoko komunikazioa lortu plantillarekin. Sindikatu atal bakoitzarekin, jarrera aktiboa erakutsiko duen laneko plan bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Sindikatuko 3 federaziook lantzen ari garen sindikalizazio-planean, azken faseak afiliatuak aktibatzea du helburu, atal sindikalaren eguneroko jardunean era aktiboan parte har dezaten. Hori asmo handiko erronka da dagoeneko gure helburuak ezarri ditugun datozen 4 urteetarako.
- Enpresa bakoitzeko sindikalizazio-lanaz gain, delegatuak sindikatuaren bizitzaren parte aktibo izatea behar dugu. Federazioaren eta eskualdeetako batzorde federalen errealtatea oso desberdina da, eta oso dinamika desberdinak ditu. Organo horrek militanteek esperientziak partekatzeko, eztabaidatzeko eta euren beharrak helarazteko organoa izan behar du. Eskualdeko Batzorde Federal bakoitza urtean gutxienez hirutan elkartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Sindikatuko militanteak, lan egiten duten enpresa edozein dela ere, langileekiko eta sindikatuarekiko konpromiso ideologikoa duten pertsonak dira. Ez dugu gure militantzia mobilizazioen eta prestakuntza jardunaldien parte izan dadin aukerarik galdu behar.

- ETEetan eta, bereziki, 3 delegatu dituzten enpresetan ere plantilla era kolektiboan antolatu nahi dugu. ETEen taldeko gure arduradunek negoziazio kolektiboa aktibatzeke eta antolaketaren aldetik lan egiteko gaitasuna dutela erakutsi dute azken urteotan, eta lan horrekin jarraituko dugu.
- Industrian eta eraikuntzan, federazioa osatzen duten sektore gehienetan, emakumeen presentzia oso txikia da, eta gehienak baldintza txarragoak dituzten eta estatalizazioak eragindako sektoreetan ari dira, eta hori ez da kasualitatea. Gainera, soldata arrakala areagotu egiten da, emakumeen kalterako. Badakigu kultura matxista eta patriarkala oso presente dagoela gure gizartean, baina errealitate hori areagotu egiten da oso maskulinizatuta dauden sektore batzuetan. Konfederazioaren eskutik genero ikuspegian sakontzen jarraituko dugu, diskriminazioak identifikatzeko tresnak emanez, gure federazioko kide diren emakumeek inolako diskriminaziorik jasan ez dezaten.



## 2 >>>

### BADA GARAIA EUSKAL HERRIAN LAN ESKUBIDEAK ERRESPETATUZ ERAIKITZEKO

ELAk aspaldidanik salatu du eraikuntzaren sektorean dagoen prekarietatea, oro har ez baitira hitzarmen kolektiboak eta lan-arloko legeria aplikatzen.

Langileen esplotazioa, kasu askotan, kostuak oso doituak diren obraren lizitazioetik bertatik hasten da. Enpresa esleipendunak etekinik handiena lortzeko lasterketa hasten du, eta enpresa bakoitza dirua kosta ahala kosta irabazten saiatzen den azpikontratazio-katea hasten da.

Eskema horretan, hitzarmen kolektiboak edo oinarrizko lan-araudia oztopo dira langileek lan gehiago egin dezaten, gutxiago kobratu dezaten eta euren eskubideei uko egin diezaieten. Testuinguru horretan gertatzen dira sektorean lan egiten dutenen lan-istripuak. Eraikuntzak urtean jasaten dituen heriotza kopuruak amorruez betetzen gaitu.

Esplotazio hori obra pribatuan zein publikoan gertatzen dela salatu nahi dugu. Erakunde guztiek, guztion diruarekin, esplotazioa sustatzen dute; izan ere badute egoera horren berri, sindikatuak euren ardurapeko obrak zein baldintzatan egiten diren salatzen baitu.

Sektoreko enpresek, gainera, euren eskubideak eskatzeko zailtasun handiagoak dituzten langile kalteberen profilak bilatzen dituzte. Testuinguru horretan, berariaz salatzen dugu migratzaileek esplotazioa jasaten dutela eta euren eskubideak erreklamatzeko orduan heretsapen handiagoak jasotzen dituztela.

ELAk modu publikoan salatu ditu gure herrialdeko obra askotan (AHT, Donostiako metroa, hainbat futbol estadio, etab.) ematen diren lan-baldintzak, eta inor ez da sindikatuak adierazitakoen aurka agertu. Enpresek eraikuntzako prekarietatea bultzatzen dute, eta administrazioak onartu egiten du.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau erabaki du:

- Sektoreko lantokietara egiten ditugun bisita-lanak bikoiztuko ditugu. Bisita sistematikoetik eta langileekiko konfiantzazko harremanetik soilik lortuko dugu sektorean lan egiten dutenen eskubideak hobetzea.
- Lizitatzen diren unetik obra jakin batzuei jarraipen handiagoa egin ahal izateko egingo dugu lan. Garrantzitsua da jakitea zer kostu izan ditzakeen obrak eta administrazioak, bereziki, zer zenbatekotan egin nahi duen. Lan horrek obra egin bitartean hitzarmenaren ez-betetzeak aurreikusteko aukera emango digu.
- Sindikatuko lan-osasuneko kabinetearekin batera, lantokietan prebentzioa lantzeko eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren edozein ez-aplikazio salatzeke egitekoa bikoiztuko dugu.

- Arrazakeriaren aurkako sindikatua gara, eta migratzaileek ere lan baldintza duinak izatea nahi dugu. Lan berezia egingo dugu gure afiliazioaren oso zati garrantzitsua den kolektibo horretara hurbiltzeko, hauteskunde sindikaletan hautagaitzetako kide izan daitezen.
- Konfederazioaren eskutik ere salatuko dugu kasu askotan gure herrialdean egiten diren obren interes sozial bakarra enpresa jakin batzuk finantzatzea baino ez dela. Horren adibide garbia da AHT, hainbat hamarkadatan obrak egin eta milaka milioi inbertitu ondoren ez baitu argi ez bere erabilgarritasuna, ezta Hego Euskal Herrian zehar izango duen ibilbidea ere.



# 3 >>>

## INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA FEDERAZIO FEMINISTA ETA ERALDATZAILERANTZ

ELA sindikatuaren Industria eta Eraikuntza Federazioak, bere Printzipioen Adierazpenarekin bat etorriz, klase-erakunde abertzale, feminista, arrazakeriaren aurkako, ekologista eta antikapitalistaren parte aktibotzat ulertzen du bere burua, eta ekonomia-, gizarte- eta lan-egiturak errotik eraldatzeko konpromisoa hartzen du.

Azken hamarkadan, ELAk barne-berrikuspeneko prozesu ausartari ekin dio –genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuari–, eta horrek desberdintasunak eta emakumeentzat diskriminatzaileak diren errealitateak atera ditu argitara, baita gure erakundearen barruan ere. Betidanik maskulinoa eta maskulinizatua izan den sindikatu gisa, genero-diagnostiko sakona egitea ezinbesteko autokritika-ariketa izan zen. Ikasi genuen ez garela salbuespena, genero diskriminazioa gure artean ere presente egon dela, eta erakundeak berak erreproduzitzen zuela, batez ere inkontzienteki, sindikatuaren esparru guztietan. Gainera, horri dagokionez, ustezko “interes orokorraren” izenean, gehiegitan egin diegu muzin emakume langileen errealitate eta interes espezifikoiei.

Inflexio puntu horrek eraman gintuen genero ekitatea sindikatu osoaren ardatz estrategiko gisa jartzera. Ekitatea da aitortzea denok ez garela puntu beretik abiatzen lan merkatuan eta hortik kanpo, eta, gainera, oztopo askori egin behar diegula aurre, gure genero baldintzapena dela eta. Prozesu horren guztiaren eta hartutako konpromisoaren ondorioz sortu zen Genero Ekitatearen Plan Estrategikoa, antolamendu-maila guztiak zeharkatzen dituzten helburu zehatz eta eraldatzaileak dituen asmo handiko ibilbide-orria.

Horrek guztiak garrantzi berezia hartzen du gure Federazioan, genero desberdintasunak eta bereizketak egiturazkoak eta iraunkorrak diren industria eta eraikuntza bezalako sektoreekin, hori guztia lanaren sexu eta arrazaren arabera banaketaren ondorioz. Industria eta Eraikuntza Federazioa da gehien maskulinizatutako federazioa, antolaketa-kultura sindikalarren eta negoziazio kolektibo klasikoaren erreferentzia, eta aurrerapausoak eman dituen arren, oraindik ere presentzia eta lidergo feminista handiagoa falta da, besteak beste.

Industriako emakumeak okupazio segregazionalari aurre egiten jarraitzen dute, erantzukizun txikiaren postuetara baztertuta daude, eta kristalezko sabaia lidergo karguetarako edo/eta erabakiak hartzeko karguetarako sarbidea eragozten jarraitzen du. Bereizketa hori lan-hierarkietan ez ezik, soldata-baldintzetan eta ahaleginen ikusezintasunean ere agertzen da.

Errealitate hori sistema ekonomiko kapitalista, heteropatriarkal eta arrazistan oinarritzen da, eta, gure Printzipioen Adierazpenak baieztatzen duen bezala, bi aldiz esplotatzen eta zapaltzen ditu emakumeak: soldatapeko lanaz eta bizitzari eusten dion ordaindu gabeko zaintza-lanaz jabetzen da. Gainera, genero-identitate eta orientabide sexual ez-normatiboak dituzten pertsonen, migratzaileen eta dibertsitate funtzionala dutenen oztopo eta bazterketa modu askori egin behar diete aurre.

Gaur egun, gure Federazioko afiliazioaren % 17,68 emakumeak dira. Datu horrek azken urteetan aurrerapen handia izan dela erakusten badu ere, oraindik ordezkartza ekitati-

botik urrun gaude. Enpresetako ordezkarietara dagokionez, gure federazioko ordezkariak sindikaleko karguen % 17,93 emakumeak dira. Datu horietan ere emakumeen ordezkariak nabarmen handitzea lortu dugun arren, argi dago bide luzea dagoela oraindik egiteko. Funtsezkoa da emakumeek lantokietan ordezkariak handiago lortzea, horrela bakarrik eragin baititzakegu bai lan baldintzetan, bai jardunbide sindikalean aldarrikatzen ditugun aldaketa sakonak.

Gure federazioan gizonen duten gehiegizko ordezkariak horrek modu estrukturalen baldintzatu du borroka sindikalak ulertzeko eta lehenesteko modua. Osaera desberdin horrek "interes orokorraren" ikuspegia erraztu du, eta horrek, gehiegitan, emakume langileen interes espezifikoak ikusezin bihurtu edo menpean jarri ditu. Gizonen eskaerak neutralak balira bezala orokortzeko joera izan da, baina, egiaz, kanpoan uzten dituzte prekarietatea, erantzukidetasuna edo zainketen aitortza bezalako funtsezko errealitateak. Hala ere, emakumeak dira enplegu prekarizatuenak gehien betetzen dituztenak, eta aitorten sozial eta ekonomiko txikiak dutenak. Negoziazio kolektiboaren joera androzentriko horrek lehenetik zeuden desberdintasunak indartu ditu, eta zuzenean eskatzen digu gure jardunbideak berrikusteko, ordezkariak bidezkoagoa eta eraldatzaileagoa eraikitzeko.

Agertoki horren aurrean, Industria eta Eraikuntza Federazioak sindikalismo feminista eta eraldatzailea bultzatzeko ardura hartzen du bere gain. Bertan, genero ekitatea, zainketen aitortza, justizia soziala eta diskriminazio mota guztien eta indarkeria matxistaren aurkako borroka gure ekintzen erdigunean egongo dira. Eraldaketa hori ez da kosmetikoa, ezta sinbolikoa ere: ezinbesteko baldintza da euskal langile guztiak modu legitimo, eraginkor eta osoan ordezkatzeko. Gainera, ikuspegi horrek genero ekitatea hobetzeaz gain, lantokietan dauden beste diskriminazio estruktural mota batzuk ere azaleratu ditzake, hala nola pertsona arrazializatuak, migratzaileak, LGTBI kolektiboak edo dibertsitate funtzionala dutenak aurrean dituztenak, negoziazio kolektiboaren irismen eraldatzailea zabalduz.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau erabaki du:

ELAko Industria eta Eraikuntza Federazioak, sindikalismo feministaren eta eraldatzailearen alde egiten duen apustuarekin bat etorritik, planteatutako helburu estrategikoekin lerrokatuta dauden konpromiso hauek hartu ditu bere gain:

- Federazioan emakume delegatuen kopurua handitzeko lan egitea, euren esperientziatik eta posizionamendutik emakume langileek negoziazio kolektiboan eta eguneroko ekintza sindikalean dituzten interes espezifikoak hobeto identifikatu, ikusarazi eta defendatu ditzaketela ulertuta. Gure hautagai zerrendetan emakumeen presentzia handitzeko mekanismoak jarriko dira martxan, baita ordezkariak laguntzeko eta boteretzeko mekanismoak ere, ordezkari roletan iraun dezaten.
- Emakumeen ahalgintza-prozesuak bultzatzea, negoziazio kolektiboari eskari zehatzak helarazi ahal izateko: emakumei zuzendutako prestakuntza-, gogoeta- eta sozializazio-guneak prestatzea, sindikatuan analisi, proposamen eta parte-hartze gaitasunak indartzeko.
- Negoziazio kolektiboan, dela enpresa, dela sektore mailakoa, genero-ikuspegia txertatzea gure aldarrikapenak egiterakoan. Horretarako, Industria eta Eraikuntza Federazioko enpresa eta sektoreetan emakume langileek dituzten desberdintasunak identifikatu eta ikusarazi ahal izateko azterlana egin beharko da.



- Emakumeen aldarrikapen espezifikoek negoziazio kolektiboan eragina izango dutela bermatzea:
  - Hitzarmen kolektiboetan klausula feministak sartzea, soldata arrakala ezabatzeko, kontziliazio erantzukidea ziurtatzeko, eta sexu jazarpenaren eta generoagatiko eta identitateagatiko jazarpenaren aurkako prebentzioa eta jarduketa, eta emakumeen sustapen profesionala bermatzeko.
  - Lan-bereizketari eta kristalezko sabaiari aurre egingo dieten eduki negoziatzaileak bultzatzea, bai eta sektore feminizatueta egindako lanari balio handiagoa emateko neurriak ere.
- Gizonen inplikazioa areagotzea genero-estrategiaren ezarpenean:
  - Delegatuak eta afiliatuak berdintasunaren eta maskulinitate berrien arloko pres-takuntza-prozesuetan eta prozesu eraldatzaileetan era aktiboan sartzea, sindikatu feministaren eraikuntzan beraien erantzunkidetasuna sustatuz.
  - Gizonen artean berrikuspen kritikoa egiteko dinamika kolektiboak sortzea, pribilegio patriarkalak zalantzan jartzeko eta sindikatuaren barruan eta lantokietan egiturazko desberdintasunak desagerrarazteko zeregina euren gain hartzeko.

# 4 >>>

## GURE LAN BALDINTZA GUZTIAK EUSKAL HERRIAN NEGOZIATZEA ESKATZEN DUGU

Negoiazio kolektiboa ELAren proiektuaren funtsezko parte da. Gure jendeak bizitza duina izateko eta langileok sortzen dugun aberastasunaren banaketa kapitalari eztabaidatzeko tresnarik onena da.

Ziur gaude langileek zenbat eta protagonismo handiagoa izan euren lan baldintzen negoziazioan, orduan eta lan baldintzak hobeak direla. Horregatik lantokiak sindikalizatzearen eta delegatuei tresnak ematearen aldeko apustua egiten dugu, hitzarmen onak lortzeko. Azken 4 urteak oso positiboak izan dira. Negoiazio kolektiboak bultzada handia lortu du oso akordio onak ekarri dituen gatazka-egoeraren eskutik. KPlaren igoerari erantzun diogu, gure jendea pobretzen utzi gabe, eta enpresetako zuzendaritzen planteamenduei modu antolatuan erantzuteko gai izan gara, baita ezinezkoa zirudienean ere. Gure militantziak nota bikainarekin gainditu du azken urteetako azterketa.

Zoritxarrez, gure federazioan milaka dira euren lantokietatik kilometro askotara negoziatzen diren hitzarmenen baldintzak pairatzen dituzten langileak. Azken urteotan lan baldintzen estatalizazioa ezabatzeko gure lana handitu eta Hego Euskal Herrian negoziatutako hitzarmenak legez nagusitzea lortu dugu. Hala ere, ikusten dugu Hego Euskal Herriko Patronalek uko egiten diotela hitzarmenak hemen negoziatzeari, eta horrek argi eta garbi erakusten du baldintza horiekin oso eroso daudela.

Hurbiltasuna eta antolaketa dira hitzarmen onak lortzeko errezeta. Kongresu arteko hurrengo aldia lan baldintza duinak bermatzeko jarraituko dugu lanean. Mobilizazioa eta greba tresna gisa hartuta.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau erabaki du:

- Edozein negoziazioren aurrean sindikatuak duen baliorik garrantzitsuena bere jendea da, baina prozesuan laguntza izatea ere ezinbestekoa da. Azken urteotan, eta negoziazio bakoitza aberasteko helburuarekin, sindikatuak hainbat dokumentu eta gida egin ditu gure militanteei laguntzeko. Eredu-plataforma zabal bat dugu, negoziazioa urratsez urrats planifikatzeko dokumentu bat, gure eskaeren gakoak biltzen dituen dokumentu politiko bat, langileentzako inkesta bat, negoziazio-eremu bakoitza diagnostikatzeko dokumentu bat eta, azkenik, negoziatzera behartuta gauden puntuen eta bakoitzaren aurrean dugun ikuspegiaren lege-azterketa bat. Argi dago eguneroko zeregin ugariak batzuetan eskura ditugun tresna guztiak erabiltzea eragozten digutela. Kongresu arteko hurrengo aldirako erronketako bat negoziazio kolektiboa plangintzarekin eta denborarekin lantzea izango da, azken urteetan izan dugun hobekuntza sendotuz.
- Greba deitzeko eta horri eusteko gaitasuna funtsezkoa da edozein negoziaziotan helburuak lortzeko. Kezkaz ikusten dugu Estatu Espainiarraren zatirik handienean greba-deialdiak testimonialak direla eta negoziatu beharreko edukiak patronalak erabakitzen dituela. Laugarren kongresuaren testuinguruan grebak leku estrategikoa izango duen



negoziazio kolektibo zorrotzaren aldeko apustua berretsi nahi dugu. Gainera, azpimarraztu nahi dugu sindikatuaren erresistentzia kutxa martxan jartzeko ardura hartu zutenek asmatu egin zutela, eta hori indartzen jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu.

- Estatalizazioak genero- eta arraza-osagaia du. Kimikako edo elikagaien industriako hitzarmenak dira okerrenak, eta sektore horiek dira migratutako pertsona eta emakume gehien dituztenak. Genero-arrakala ezabatu nahi badugu, pertsonen jatorriaren araberako diskriminazioak ezabatu nahi baditugu, estatalizazioarekin amaitu behar dugu. Lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, langile guztien lan-baldintzak Euskal Herrian negoziatzea daitezen, hainbat sektoretan egiten ari garen lanari jarraipena emanez.
- Azken urteotan, eta bereziki negoziozko sektorialetan, gure emakumezko delegatuak baino deitu ez ditugun batzarrak egin ditugu. Esperientziak oso positiboak izan dira, emakumeek pairatzen dituzten arazoei izan baitituzte ardatz, konponbideak identifikatzeaz gain. Gainera, ikusi dugu, oro har, batzar mistoetan gizonak eztabaidak monopolizatzeke joera dutela, eta emakumeen batzarretan partaidetza anitzagoa dela. Foro horiek bultzatzen jarraituko dugu, eta enpresako negoziozkoetara ere hedatzen saiatuko gara, baldintzek ahalbidetzen dutenean.
- Bizitza erdigunean jarri nahi dugu. Horregatik, zaintzak defendatzearen aldeko apustua egingo dugu gure plataforma aldarrikatzaileetan. Gero eta beharrezkoagoa da hitzarmenetan bizi-egoera bakoitzean zaintza eta lana bateragarri egiteko eskubideak izatea. Testuinguru horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu lanaldia murrizteko egiten dugun lana indartzea, eta hori bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Lantokiak, bereziki, eta lan-merkatua, oro har, eraldaketa handia jasaten ari dira. Robotizazioa, adimen artifizialaren erabilera eta digitalizazioa aukera dira, baina logika kapitalistan prekariedade hedatzeko tresna berriak izan daitezke. Eragindako sektoreen antolaketa langileen interesetatik lantzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Azken urteetan garaipen kopuru handia pilatu dugu. Egin ohi dugun urtekariak aurreko urteetako pozak gogorarazten laguntzen digu, baina ospakizunetan gutxi gelditzen garen sentazio kolektiboa dugu. Sindikatuak bere burua aintzatesteke eta gozatzeko lekua ere izan behar du. Datozen urteetan arreta handiagoa jarri nahi dugu garaipenetan, gure jendeak merezi du eta.

# 5 >>>

## KALITATEZKO ENPLEGUA BERMATU ETA TRANTSIZIO EKOSOZIALA BULTZATUKO DUEN INDUSTRIA POLITIKA EXIJITZEN DUGU

ELAtik berriro salatzen dugu Hego Euskal Herriko industriak urteetan daraman gainbehera. Nahigabe handiz ikusten dugu enpresen itxierak eta horiek dakarten enplegu galera etengabe ari direla gertatzen. Errealitate horren aurrean, erakundeek propaganda-ariketen aldeko apustua egiten jarraitzen dute, euren gaitasunik eza estaltzen saiatzeko.

Gasteizko eta Iruñeko gobernuek urteak daramatzate doktrina neoliberala modu ortodoxoan jarraitzen. Enpresetako zuzendaritzen erabakiak bultzatzen dira, direnak direla, modu aktiboan lan egiten da langileek itxiera onar dezaten, eta ez da laneko inolako borrokarik babesten. M. Rajoyren gobernuak onartutako kaleratzeak errazten dituen lege esparruak enpresak ixtera gonbidatzen jarraitzen du, irabaziak pilatu arren, eta Estatuko gobernuan egon diren edo gobernua babestu duten alderdiek ez dute esparru hori aldatu.

Nafarroan jasaten ari garen itxiera eta kaleratze kolektibo ugarien aurreko pasibotasunak edo, adibidez, Guardianeko labea itzaltzea errazteko jarrera aktiboak gure erakundeak ertratutzen dituzte.

Gainera, teoriarik mezu aurrerakoiak eta ultraeskuindarren politikekin aurrez aurre jarri nahi direnen atzean, gure agintariak armagintzaren aldeko apustua egiten ari dira, planetarekin arduratsuagoa den industriadako trantsizioari bizkarra ematen dioten bitartean.

ELAk trantsizio ekosozialaren aldeko apustu sendoa egin du. Asko dugu jokoan. Erregai fosilen eta estraktibismoaren mende gutxiago egoten hasteko, ekonomia zirkularraren eta birkokapen ekonomikoaren alde egingo dugu. Erabakigune eta ekoizpen gune hurbilagoak ere behar ditugu.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau ebatzi du:

- Industria eta eraikuntza federaziotik eta EREen eta konkurtsoen aurkako taldearen eskutik enpresen itxiera saihesteko jarraituko dugu lanean. Ez dugu gure jendea kalera-tzen saiatzen direnen aurreko gure jarrera sendoa baztertuko. Itxierako planteamendu bakoitzaren aurrean esperientziak biltzen jarraituko dugu, borroka sindikal eta juridikoan gero eta eraginkorragoak izateko.
- M. Rajoyren gobernuak onartutako lan-erreforma erabat indargabetzeko eskatzen jarraituko dugu. Kaleratzearen kostua merkatzeaz gain, izapidetze-soldatak eta espedienteen administrazio-kontrola ezabatu zituen. Administrazioak espedienteen kontrolera itzultzea eskatzen dugu. ELAk ez du onartzen enpresak ixtea eta langileak kaleratzea errazteko sortutako legeriarik.



- Euskal Herrian industria bultzatzea helburu nagusitzat izango duen banka publikoa sortzea eskatzen dugu. Inplikazio publikoa, epe luzerako ikuspegia eta bizitzarekin bateragarriak diren sektore estrategikoen aldeko apustua behar ditugu.
- Ekonomiaren norabidea aldatu nahi duen edozein industria-politikak inbertsio publiko handia behar du. Horregatik, ELA industria eta eraikuntzatik, sindikatuaren gainerakoarekin batera, fiskalitate bidezkoagoa bultzatzeko kanpainak bultzatuko ditugu, enpresek euren erantzukizun soziala saihestu ez dezaten.
- Hainbat hamarkadatan lanaldia murriztu gabe egon ondoren, ezinbestekotzat jotzen dugu lanaldia murriztearen aldeko apustua egitea, eta are gehiago automatizazioak eta digitalizazioak produktibitatea asko handitzea ekarri duten testuinguruan.
- Dagoeneko hasi dugun lanari jarraipena emango diogu, energia fosilaren mende dauden enpresei ekoizpena dibertsifikatzeko beharra planteatuz. Emisioei, hondakinen kudeaketari, erregai fosilen erabilerari eta energia berriztagarrien erabilerari buruzko informazio eskaera jasoko duen enpresen kopurua handituko dugu. Ingurumen arloko Baimen Integratua behar duten enpresei informazio eguneratua eskatuko diegu, eta emisio eta hondakin gutxiago sortzeko beharrezko hobekuntzak planteatuko ditugu.
- EBk bultzatutako militarizazio prozesua arbuiatzen dugu, erabaki horiek beti langile-entzat heriotza eta miseria eragin baitute. Gizartearen benetako beharrak lehenetsiko dituen eredu alternatiboa defendatuko dugu. Justizia sozialean, ingurumenarekiko errespetuan eta eskubideen bermean oinarrituko den bidezko trantsizio ekosoziala behar dugu. Gerrari eta suntsipenari lotutako sektoreak bultzatu beharrean, Euskal Herriak bizitzari eusten diotenetan inbertitu behar du: zaintza sistema publiko, unibertsal eta duinean, adibidez. Bakearen alde egitea bestelako eredu ekonomiko, produktibo eta sozial baten alde egitea ere bada.

# 6 >>>

## LAN MERKATUKO DISKRIMINAZIOAK ETA PREKARIETATEA EZABATZEKO EGINGO DUGU LAN

Lan-merkatuan daudenen gero eta ehuneko handiagoak ez du bizitza duina izatea lortzen, ezta lanaldi osoa izanda ere.

Prekarietatea modu planifikatuan sortzen da. Lan-arloko legeriak, hainbat hamarkadatan eskubideak galdu ondoren, pertsonak pobretzen laguntzen du, baina, gainera, hitzarmen kolektiboak eta legedi oinarritzak ez betetzeak badirudi ez diola patronalari eragiten. Horrela erakusten dute sindikatuko zerbitzu juridikoek urtero patronalaren ez-betetzei aurre eginez kudeatzen dituzten milaka esperientzia juridikoek, baina enpresek ez dute euren jarduteko modua aldatzen.

Lan prekario bakoitzaren atzean egoera horretatik irabaziak ateratzen dituen norbait dago. Gainera, ukaezina da prekarietatea zenbait kolektibotan ematen dela batez ere, hala nola emakumeak, etorkinak, gazteak, LGTBI kolektiboa eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak.

Bestalde, hau galdetzen diogu geure buruari: Non dago lan-ikuskapena? Gure ustez, ikuska-pena baliabide eskasez hornitzea erabaki politikoa da, baina adierazi behar dugu, halaber, kasu askotan, salbuespenak salbuespen izan ezik, haien jarduna gehiago zentratzen dela enpresa-erabakiak justifikatzean ilegaltasunak jarraitzean baino. Erakundeek gelditasun horrek eta enpresen zuzendaritzekin duten konplizitateak, besteak beste, gizarte gisa erabat onartezinak diren istripuak eta lanpostuan hildako pertsonak eragiten dituzte. Prekarietateak hil ere egiten du.

Gero eta emakume gehiago daude federazioan afiliatuta, eta duela urte batzuk idazkaritzan arduradunak sartzeko egindako apustua oso positiboa izan da. Gure antolaketa-kulturan ikuspegi eta lan egiteko modu berri desberdinak ematen dizkigun aldaketa izan da. Errealitate horren ondorioz, are gehiago jabetzen gara kultura patriarkal eta matxista aldatu ez den enpresetan eta sektoreetan emakumeek jasaten dituzten diskriminazioez. Sindikatuko esparru guztietan emakumeei lekua ematen jarraitu behar dugu, haien aldarrikapenak eta interesak gure egunerokoa merezi duten zentralitatea izan dezaten.

Prekarietatearekin eta diskriminazioekin apaltasun handiz baina sendotasunez amaitzeko erronka onartu nahi dugu. Kongresu arteko aldi honetan garaipen garrantzitsuak lortu ditugu, baina egia da, halaber, kolektibo horien egoera ezegonkorraren ondorioz horiek antolatzea kostatzen zaigula. Prekarietatearen kontrako kanpaina konfederalak lehenik planifikatu ahal izatea eta gero denbora prekarietateari aurre egitera zuzentzea bilatu du, baina ez da erraza izaten ari enpresen erabakiei aurre egitea.

ELA industria eta eraikuntzaren laugarren kongresuak hau erabaki du:

- Prekarietatearen aurka borrokatzeko ezinbestekotzat jotzen dugu lan sistematikoarekin jarraitzea. Sortu ditugun gida espezifikoek kasuistika desberdinei aurre egiten laguntzen



digute, eta gure militanteen artean horien erabilera zabaltu eta normalizatu behar dugu. Prekarietatearen aurrean gure lana sistematizatu behar dugu.

- Gure militanteek enplegu-zentro berezietan egindako lana aintzatetsi nahi dugu. Kezkaz ikusten dugu gure ustez lan-merkatuan lekurik izan behar ez luketen irabazi asmoko enplegu-zentro bereziek gora egin izana. Sektore osorako erreferentzia izango den hitzarmen sektorialaren alde egiten dugu. Enpresek dibertsitate funtzionala duten pertsonak kontratatzea ere exijituko dugu.
- Gero eta pertsona migratu gehiago daude gure federazioan. Elikaduraren industria bezalako sektoreetan gure federazioaren oso parte garrantzitsua dira. Gure militantziaren parte aktibo izan daitezen eta haien behar zehatzak hobeto identifikatu ahal izan ditza-gun egingo dugu lan.
- Egoera prekarioan dauden pertsonen euren lan-baldintzak hobetu ahal izateko lehen urratsa egonkortasuna ematea da. Azken urteotan, sektoreko hitzarmenei subrogazio eskubidea emateko eskakizuna exijentzia bat izan da gure federazioarentzat. Bide horretatik jarraituko dugu. Kontratetako langileek, oro har, edo enpresa handietako hornitzaileen parkeek subrogaziorako eskubideak sortzen duen egonkortasuna behar dute.
- Hego Euskal Herriko lan-mundua ia erabat elebakarra da. Euskaraz lan egin nahi duten langileek izugarritzko zailtasunak dituzte. Lantokietan euskararen aldeko batzordeak sortzea errazten duten klausulak sartu ditugu hainbat hitzarmenetan. Gure hizkuntzak jasaten duen diskriminazioa gainditzeko jarraituko dugu lanean konfederazioaren eskutik, sindikatuaren barruan zein lantokietan gure hizkuntzaren erabilera sustatuz.
- LGTBI pertsonen ez dute inolako diskriminaziorik jasan behar lan-munduan. Azken urteotan kolektibo horien beharrei erantzuten dieten eskaerak sartu ditugu plataformetan, baina lanean jarraitu behar dugu, orientazio sexualen eta genero identitateen arabera pertsonak estigmatizatzen dituzten diskurtsoak desagerrarazteko.
- Sindikatu osoak bultzatu nahi duen sindikalismo feministaren eskutik, emakume afiliatu eta delegatu kopurua handitzea dugu helburu. Emakumeak protagonista izango diren, euren beharrak adieraziko dituzten eta hartutako erabakien betearazpenaren parte izango diren militanteen foroak irekitzen jarraituko dugu. Guztiontzako negoziazio kolektiboaren alde lanean jarraitu behar dugu.
- Gazteek pairatzen dute bereziki prekarietatea, eta egoera hori, oro har, bizitzaren eta, bereziki, etxebizitzaren, garestitzearekin lotzen badugu, bizitza duinerako proiektua konprometituta ikusten dute. Buru belarri egingo dugu lan langile gazteek sindikatuaren euren bizitzak duintzeko tresnarik onena aurki dezaten.

» **Unai Martinez Azarola\***

Idazkari Nagusia

» **Arrate Elkoro Zengotitabengoa\***

GEPE/KS Irulea, Ezkerraldea-Kadagua, Bilbo, Eraikuntza Bizkaia, Nazioartea

» **Mikel Etxebarria Campos\***

Konkurtsoen Taldea, Ibaizabal-Nerbioi

» **Sergio Vazquez de la Fuente**

Gernika-Durango, Eskumaldea

» **Esther Arruti Roteta\***

Oria Goierri, Oarso-Bidasoa, Donostia, Eraikuntza Gipuzkoa

» **Ioritz Pérez de Mendiguren Lekuona**

Nafarroa, Deba

» **Amagoia Lasagabaster Altube**

Gasteiz, Urola-Kosta

\* Nazio Batzordeko kide gisa ere proposatzen da



**OHARRAK:** .....





**OHARRAK:** .....